

QEU

2,40 €

2009ko uztaila


197

euskara
aiasetu

gizartea
zainketa paliatiboak

musika
lor
jazzaharrean

historia
andagosteko borroka



malabare topaketa

uztailak 4 – 12 gasteiz





ONENAK INPLANTOLOGIAN

HOBETU ZURE BIZITZA KALITATEA

ETA BERRIZ ERE IRRI ETA JAN EGIN BETI BEZALA

- Inplantologian profesional adituak eta formakuntza jarraituan
- Azken teknologia eta teknika aurreratuenak
- Material onenak, titanio kasu
- Funtzionaltasun biribila, erresistentzia hobezina eta estetika bikaina
- Liderra Inplantologian 15 urte baino gehiagoko esperientziaz

VITORIA-GASTEIZ
GORBEIA KALEA, 13
945218260



CLINICAS
VITAL DENT
ONENAK ODONTOLOGIAN

ASTELEHENETIK LARUNBATERA IREKITA 12 ORDUZ EGUNEAN
12 HILE INTERESIK GABE ETA 5 URTE ARTEKO FINANTZAKETA

geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 197

geugaia

32. europar malabare topaketa 7-11

geugaia II

heriotzari abegi 13-16

[patxi zubizarretaren gizarte gaien sortako azkena]

bat3tan

aisetu 19-21

bat2tan

arabako auresku & dantza suelto tx. 22-23

bat3tan

mendebaldeko sahara 25-27

musika

arabatakada (balorazioa)
& jazzaharrean 09 30-31

arte txokoa

lor taldea 32-33

euskara&historia

andagosteko borroka 34-35

beste:

agenda, kaletik, proposamenak, musika zutabea,
geusex, araba bixotzian, historia zutabea,
errezeta eta umorea



GEU

GEU aldizkaria | sorrera-data: 1992 | helbidea: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com |
www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | kazetariak: edurne begiristain, ainhoa arriaga, naroa cuesta eta ane pedruzo | azala: ejc elkarte kulturala |
argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak:

geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | kolaboratzaileak ale honetan: patxi zubizarreta, kike
fdz de pinedo, uhina, erlantz urtasun, miren lpz de arregi (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesan-mendizorrotzako ostalaritza eskola). |
publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu
Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | **GEU aldizkariak**
ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

www.geugasteiz.com

Laguntzaileak:



zereginuskaraz [09uztaila]



zaharraz harro!!

alde zaharreko jaiak
fiestas del casco viejo

astelehena 29
18etan
Cross popular infantil Casco Viejo (prebenjamin, benjamin, alevin)
Salida en "Los Amigos" (Corre 157)
Asteleneetik igandera. Erakusketa "Retratos", Zaira Ruiz
Dublin tabernan

astearte 30
17etatik aurrera - Landarxon (umeentzako)
Herri kirolak / Talo eta euskal dantza tailerrak
19:30etan - Zuloa Irudia (Corre 21)
Charla: Control social en el Casco Viejo (video vigilancia, inmigración, disidencia política...)
Cesar Manzanos (profesor de la UPV-EHU)
Arturo Izarola (Asoc. vecinos de San Francisco - Bilbao)

asteazkena 01
miercoles
19etan - Ramón Bajo Ikastetxean
Charla-Debate: Crisis y reparto de la riqueza.
Munduan eta alde zaharrean
Joseba Garmendia (Profesor de la UPV-EHU)

ostirala 03
miercoles
17etan - Auzolana pilotalekuan. Dantza bidezko trueke kulturala emakumeon munduak batuz
20etan - Aizkora tabernan. Kafe-Tertulia: Auzoko presoak (dispersión, pres@s enferme@s, penas cumplidas...)

osteguna 02
jueves
10etan - Txistularien dianoak
10:30etan - Eskoriatza Eskibelen. Aldarrikapen Altxorra
11etatik 14ak arte - Hala bediko zuzeneko emisioa
10etatik aurrera - Arroces del mundo
- Goizean: Umeentzako jolasak eta tailerrak, munduak...
- 14etatik aurrera: degustación de arroces
- Arratsaldean: Coro Donny, actuaciones de baile y música, exhibición de bailes de salón...

larunbata 04
sabado
19etan - Eskoriatza Eskibelen. Dantzas orientales
22etan - Eskoriatza Eskibelen. Umeentzako zinea
22etan - Gaztetxean. Guatekea!!!
23:30etan - Dublin tabernan. DJ Parrucho

igandea 05
domingo
Auzolana pilotalekuan urteurrena
12etatik aurrera - Auzolana pilotalekuan
- Txapelketa herrikoiak (partiduak 6 rantueta)
- Umeentzako esku pilota / Gainerakoentzako pala eta esku pilota
- Esku pilota tailerra
- Lunch
22etan - Gaztetxean. Mikel Urdangarin (kontzertu akustikoa)

ekainak 29 junio - uztailak 5 julio
auzo harrotasuna • argaldi deharrio • autogestioatutak • autogestioatuta • partehartzaileak • argaldi deharrio

ZAHARRAZ HARRO

GASTEIZKO ALDE ZAHARREKO JAIK
EKAINAK 29-UZTAILAK 5
UZTAILAK 5: AUZOLAN PILOTALEKUAREN URTEURRENA

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

MENDIALDEKO ERREBANTXA SARIA
UZTAILAK 4, BAZKAL OSTEAN, KANPEZUN
2009KO ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA
TXAPELDUN ETA TXAPELDUNORDEARI ERREBANTXA
KANPEZUNO IOAR DANTZA DANTZA TALDEAREN
XXV. URTEURRENEKO JAI BARRUAN
BERTSOLARIK: OIHANE PEREA, ASIER OTAMENDI,
INAKI VIÑASPRE, JUAN MARI JUARISTI ETA MANEX
AGIRRE
ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA 945010505
675707971
ARABA@BERTSOZALE.COM
WWW.BERTSOZALE.COM

EUSKHARAN KULTUR ELKARTEA

MINTZA PRAKTIKA FRESKOA UDAN
UZTAIL ETA IRAIL OSOAN ASTEARTE ETA
OSTEGUNETAN 19:00-20:30
IZENA EMATEKO: ASTELEHENETIK OSTIRALERA
15:30-21:30 AMAIA ZENTROA (BENITO PEREZ
GALDOS PZ)
945288275 / EUSKHARAN78@EUSKALNET.NET

X. HIK HASI UDAKO TOPAKETAK

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN HEZKUNTZAN
UZTAILAK 1, 2, 3 9:00-14:00
DONOSTIAKO FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEAN ETA EKINTZA IKASTOLAN
INFO + & IZEN-EMATEA: WWW.HIKHASI.COM

TXANGO KULTURALAK

UZTAILAK 18 GIPUZKOA

IRTEERA: IPARRALDE G.E.-TIK 9:00 / ITZULERA: 21:00
EKAINBERRIKO HAIZTULOA (ZESTOA) ETA ALDE
ZAHARRA (GETARIA)

[OINETAKO EROSOAK ERAMAN]

12 EURO / IZEN EMATEAK:
IPARRALDE+JUDIMENDI+LAKUA+ALDABE+EL
PILAR+HEGOALDE G.E. (TXANGOA IZANGO DEN
ASTEKO ASTELEHENETIK OSTEGUNERA)
LEKU MUGATUAK; JANARIA EZ DA SARTZEN
PREZIOAN (PARTE-HARTZAILEEN KONTURA)
TXANGO GUZTIAN GIDA ESPEZIALISTA BAT
IZANGO DA.

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG

DIBERTIKALE

ORDUA: 19:30

UZTAILAK 1: ASIER KIDAM (BRINDIS MAGIKOA) -
HEGOALDE G.E.-KO PZ

UZTAILAK 2: ZIRKA ZIRKUS (ILARGIAN) - JUDIMENDI
G.E.-KO SEFARAD PZ

UZTAILAK 3: JAKIN ETA JOLAS (DANTZAN BLAI)
- KONSTITUZIO PZ (EL PILAR G.E.)

UZTAILAK 6: SAMBUH TEATRO (BIHOTZEZ) -
ARRIAGAKO G.E.-AREN ONDOKO OINEZKOEN
ESPARRUA

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG

MATINE

**LUZEMETRIAK EUSKARAZ (PUBLIKO
GUZTIENTZAKO ZINEMA)**

IGANDERO 11:00

BARRIOLA, S. ADRIANGO AZERIA. UZTAILAK 5
PEREZ, GURE SAGUTXO HORI II. UZTAILAK 12
ARGI BILA. UZTAILAK 19

WWW.MONTEHERMOSO.NET

**BECERRO DE BENGUA &
IGNACIO ALDECOA &
ERNESTINA
CHAMPOURCIN DE**

EPEA: IRAILAK 8

WWW.ALAVA.NET

**IX. JUAN SAN MARTIN
IKERKETA BEKA**

EPEA: IRAILAK 1-URRIK 11

IKERKETA ESPARRUA: ARTEA / 9.000 EURO

WWW.EIBAR.NET

**PEDRO DE ATARRABIA XXI.
LITERATURA SARIKETA 2009**

EPEA: IRAILAK 11

ATARRABIAKO UDALA (KULTURA ZERBITZUA)
CULTURA@VILLAVA.ES

**IX. AUGUSTIN ZURIKARAI
SARIA**

EPEA: 09 ABENDUAK 1

WWW.ELKARGITALETXE.ACOM

**HIZNET. HIZKUNTZA
PLANGINTZA
GRADUONDOKOA**

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO
BEREZKO TITULUA. HPS-REN
BERMEAREKIN**

IKASTURTE BATEKO IRAUPENA

IZEN-EMATEA: URRIAREN 22RA ARTE (PLAZA
MUGATUAK)

PREZIOA: 1.401,20 EURO

EUSKO IKASKUNTZAREN ASMOZ FUNDATZIOA
(JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 275, 20015
DONOSTIA)

943326398/HIZNET@ASMOZ.ORG

HTTP://HIZNET.ASMOZ.ORG

**IOAR DANTZA TALDEAREN
XXV. URTEURRENA**

UZTAILAK 4, KANPEZUN

WWW.IOARDANTZATALDEA.COM

SPRAIKADA

EH-KO VI. GRAFFITI LEHAIKETA

UZTAILAK 18, MUTRIKU

WWW.SPRAIKADA.COM

ADURTZAKO JAIK

UZTAILAK 17-19

BERTSOLARIK, DANTZA, TXALAPARTA,
UMEENTZAKO ANTZERKIA, DANTZALDIA (GAU
BELA TALDEA)...

Adurtzako Jaiak 2009

**POTATO
SIROKO
RUDE KANKA**

Ostirala 17
Visierres 20:00 N. - 23:00ak



Fiestas de
ADURTZAKO
jaiak 2009

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

IRUÑA-VELEIA

HITZALDIA

IRUÑA-VELEIAKO GRAFITOAK. EGIAZKOAK?

GOIURI JAUREGIAN - (GASTEIZ)

[MTZ. DE SALINAS ARETOA]

UZTAILAK 7, ASTEARTEA, 19:30

HIZLARIAK:

ELISEO GIL, aztarnategiaren zuzendari ohia (gaztelaraz)

IDOIA FILLOY, aztarnategiaren zuzendarikide ohia (gaztelaraz)

KOENRAAD VAN DEN DRIESCH, geokimikan espezializatutako geologo doktorea (gaztelaraz)

JUAN MARTIN ELEXPURO, euskal filologian doktorea (euskaraz gaztelarazko laburpenarekin)

GRAFITOS DE IRUÑA-VELEIA ¿VERDADEROS?

CONFERENCIA HITZALDIA



IRUÑA-VELEIAKO GRAFITOAK EGIAZKOAK?

GOIURI JAUREGIAN / PRÁLADO DE VILLA SISO
(GASTEIZ)
[SALA MTZ. DE SALINAS ARETOA]

Uztailak 7 de Julio
Martes - Asteartea - 19:30

ELISEO GIL, Ex-director yacimientos,
ahtarnategiaren zuzendari ohia,
(gaztelaraz)

KOENRAAD VAN DEN DRIESCH, Geologo,
Doktor, espezializatu en Geokimika,
Geokimika espezializatutako geologo doktorea,
(gaztelaraz)

IDOIA FILLOY, Ex-coordinadora yacimientos,
ahtarnategiaren zuzendarikide ohia,
(gaztelaraz)

JUAN MARTIN ELEXPURO, Doctor en
Filología Vasca, Euskal Filologian doktorea,
(euskaraz)



'EI GAZTE! EUSKARA DA NIRE AUKERA. ZEIN DA ZURE ESTILOA?' PROIEKTURAKO GAZTE BILA

EUSKO IKASKUNTZAKO GAZTERIA SAILA, 'EI GAZTE! EUSKARA DA NIRE AUKERA. ZEIN DA ZURE ESTILOA?' PROIEKTUAN PARTE HARTZEKO 18 ETA 30 URTE ARTEKO GAZTEEN BILA DABIL. ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAN GARATUKO DA PROIEKTUA ETA GAZTEEK HIRU LURRALDE HAUETAKO HERRI BATEAN ETA HIRIBURUAN EUSKARAK BIZI DUEN EGOERA AZTERTZE DU XEDE. OSTEAN, ATERPETXE BATEAN ASTE BUKAERA BATEKO EGONALDIAN EGOERA DESBERDINAK ALDERATUKO DIRA ETA BESTE LURRALDEAKO GAZTEAK ETA EGINDAKO LANA EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DA.

IRAILAN HASI ETA ABENDUAN AMAITZEN DEN EKIMENA DA ETA GAZTEEK EUSKARAREN EGOERA EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DUTE ETA SOZIOINGUISTIKAREN KONTZEPТУ NAGUSIAK EZAGUTU AHALKO DITUZTE.

PROIEKTU HONEN GARAPENAK AUKERA ASKEKO KREDITUEN KONBALIDAZIOA IZANGO DU.

INTERESATUEK ONDORENGO HELBIDE ELEKTRONIKORA BIDAL DEZAKETE EUREN IZEN-EMATEA GAZTERIA@EUSKO-IKASKUNTZA.ORG ONDORENGO DATUAK BIDALIZ:

-IZEN-ABIZENAK

-JAIOTZE DATA

-ZEIN LURRALDEAN BIZI DEN

-IKASKETAK (AMAITUAK EDO BURUTZEN ARI DIRENAK)

INFORMAZIO GEHIAGO:

[HTTP://EIGAZTE.EUSKO-
IKASKUNTZA.ORG/INDEX.PHP?OP=TAILERR
AK&SHOW=2](http://eigazte.eusko-ikaskuntza.org/index.php?op=tailerrak&show=2)

G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA' DIGITALA JASO NAHI?

BIDALGUZU ZURE E-POSTA GEU@GEUGASTEIZ.COM HELBIDERA ETA HILERO JASOKO DUZU.

GASTEIZKO EUSKARAZKO EKINTZEN BILDUMA DA G.E.A.

EZINBESTEKO GASTEIZEN EUSKARAZ MUGITZEKO!

GEU ELKARTEAREN OHARRA

EUSKALDUNON LAN POLITSAN SARTU NAHI BADUZU, BIDALI IZEN-ABIZENAK ETA KONTAKTURAKO TELEFONOA GEUELKARTEA@GRN.ES HELBIDERA ESKERRIK ASKO!

KANGEUROAK

UMEAK ZAINTEKO PREST BAZAUDE EMAN ZURE IZENA ZERRENDA HONETAN ETA ZERBITZU HAU BEHAR DUTENAK JARRIKO DIRA ZUREKIN ZUZENEAN HARREMANETAN. HORRETARAKO, BIDALI GEU@GEUGASTEIZ.COM HELBIDERA ZURE IZENA, TELEFONOA ETA ORDUTEGIA (GOIZEZ/ARRATSALDEZ/GAUEZ/EGUN OSOZ/ASTEBURUAK).

>UNAI GARMENDIA MAEZTU

695 705 621 / GARMEN_92@HOTMAIL.COM

UMEZALEA, ARDURATSUA, EUSKALDUN PETO-
PETOA, 17 URTEKO. OHITUTA UME TXIKIAK
ZAINTZEN.

SARRIA EDO GASTEIZ ALDEAN LAN EGITEKO
PREST.

EHZ FESTIBALA

HERRI BAT ZUZENEAN

HELETAN, UZTAILAK 3-4-5

WWW.EHZ-FESTIBALA.COM

JAZZALDIA / JAZZAHARREAN / JAZZTERRACE



NAZIOARTEKO XAKE-OPENA

GASTEIZ, UZTAILAK 26-ABUZTUAK 3

(IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: UZTAILAK 22)

[HTTP://SITES.GOOGLE.COM/SITE/OPENVITORIA/
HOME](http://sites.google.com/site/openvitoria/home)

begiraleak behar ditugu

GUSTUKO DUZU KIROL EN BAT? KULTUR
JARDUERARIK? DAGOENENKO BEGIRALE
ZABILTZA? KIROL EDO ESKOLAZ KANPOKO
EKINTZEN BEGIRALE JARDUN NAHI DUZU?

Euskalduna bazara, 17 urtetik gora baduzu eta kirol
begiralea edo eskolaz kanpoko ekintzaren batean aritzeko
ezagupenik baduzu, sartu zure kurrikulua webgunean.

Baina zertarako? Bada, Arabako eta Gasteizko ikastola eta
eskoletan zailtasunak dituzte begiraleak topatzeko
ikasturtearen hasieran, horrexegatik begirale-zerrenda
martxan jarriko da ekainetako aurrera. Zerrenda horren
bidez lortu nahi dugu harremanetan jartzea eskolak eta
begiraleak eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza asetzeko
irailetik aurrera. Proiektu hau hasi gara jorratzen hainbat
eragile, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren
laguntzaz. Animatu eta sartu zure datuak!

izena eman
www.aisetu.org

Informazioa: Geu Gasteiz ☎ 945 222 153

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundación



Euskeraz Arabo BAI

www.euskoalkartasuna.org c/ san prudencio 3 gasteiz-erdialdea

azkarprint
imprenta / inprimategia

Landazuri, 7 - 945 23 30 01

GASTEIZ

♦ INPRIMATEGIA ♦

DIBUtec

Papertegi teknikoa

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Eramun
Argazki - Estudioa

Heracio Fournier, 23
(laborategia) 945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Araba Jiraldor

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatura - Zaldiaran plaza **GASTEIZ**

El Clarete
jatetxea

unai eta patxi fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

dalvez

maketazioa l inprimatze-lanak l diseinua

bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz

diaz de olano margolaria, 22 - gasteiz
tl 652 77 65 09 - fx 945 24 52 69
info@dalvez.com www.dalvez.com

32. MALABARISTEN EUROPAKO TOPAKETA

GASTEIZ. UZTAILAK 4-12

GASTEIZ, ASTEBETEZ AIREAN ESEKITAKO HIRIBURUA

KALE GIROA PIZTU EGITEN DA GASTEIZEN UDA PARTEAN. BEREZIKI AURTEN. MILAKA ARTISTA HELDUKO DIRA MALETA TRAMANKULU KOLOREDUNEZ BETERIK GUREA BEROTZEKO PREST; GASTEIZEN EGINGO BAITA MALABARISTEN MUNDUKO TOPAKETARIK ERRALDOIENA. HORTAZ, EZINEZKOAK DIRUDITEN IKUSKIZUNAK IZANGO DIRA NAGUSI HILAREN 4TIK 12RA GASTEIZKO KALE, KANTOI ETA PARKEETAN. PILOTAK, MAZOAK, ERAZTUNAK, KARIOKAK... GIROA KOLOREZTATU ETA BIDEAN AHO IREKI UGARI UTZIKO DITUZTE.





unai saenz, patxi fadrique eta ana brea, antolatzaileak

t. naroa cuesta

a. edorta sanz & ejc elkarte kulturala

EJC (European Juggling Convention), hau da, Europako Malabaristen Topaketa 1987. urteaz geroztik urtero ospatzen da Europako hiri batean. 32. edizioa non eta Gasteizen izango da. Euskal Herriko malabaristek momentu honekin amets egin dute luzaroan. Horrenbestez, haiek dira topaketaren berri emateko aproposenak. Urduri daude, lanez gainezka. Hala eta guztiz ere, egunak dituen hogeita lau orduetako bat eskaini diote GEUri. Ana Brea, Patxi Fadrique eta Unai Saenz Peciñak jaialdi honetan aurki daitekeen zehaztasunez azaldu digute.

Zirku arteen bilduma

Malabarismoa antzinako tradizioa da. Izan ere, emakume egiptoarrak k.a. 1790. urte aldera malabare jokoetan trebatuak zirela egiaztatzen duten margoak ei daude. Hainbat objektu airean erabili eta maneiatzea an datza zirku arte hau. Objektuen kantitatea

eta tamainak eransten diote zailtasuna arikerari, betiere, helburua bera izanik: lurra ekiditea. Eskuak izan ohi dira objektu anitzak maneiatzeko erremintarik ohikoena eta erosoena. "Edonork egin dezake malabarismoa; pazientzia izatea da gakoa", ziurtatzen de Unai Saenz Peciña malabaristak. "Ez dago ordutegi finkorik, baina orduak eman daitezke praktikatzen eta denboraren nozioa galtzea erraza da horrelakoetan", diosku Patxi Fadriquek jaialdiaren azpiegitura arduradunak. Ana Brea, EJC 2009ko koordinatzailea, malabareei eutsiz sartu zen mundu honetan; gaur egun aldiz, akrobazia, dantza eta trapezioan aditua da.

Ahaleginaren ordaina

Hirurak buru-belarri ari dira lanean topaketak hutsunerik izan ez dezan. Koblakari Bizkaiko malabaristen elkarte, Jaxenolaf Txingudiko Malabaristen Elkarte eta Baionako Zirku Eskolako kideek hausnarketa saio emankorrak izan zituzten 2005. urte aldera. Ostean Euskal Hamaika Zirku Elkarte

sortu zuten ideiak eta proposamenak garatzeko helburuz. Munduan antolatzen den malabaristen bilerarik handiena Euskal Herrian izatea erokeria zirudien, bai... baina, lau urte beranduago amets eroa bete dute. Ordutik, hogeita hamar pertsonak osatutako lan-taldea izan da topaketaren nondik norakoak adostu eta garatu dituen; EJC Elkarte Kulturala sortu zuten topaketa antolatzea izanik helburu nagusia.

Bizipenak partekatuz eta gozatuz

Gasteizko Mendizabalako esparruak aukera anitz eskaintzen ditu horrelako jaialdi bat egokiro antolatzeko. Azoka-lekuan bi zonalde bereiziko dira: sarrera librekoa eta erabilera mugatukoa. Lehenengoan, edonork izango du denda, tailerrean, txosnan eta serigrafia ikasteko autobusean murgiltzeko aukera. Bigarrenean, aldiz, inskripzioa egin ostean kanpaldi eta karpak izango dira bisitari eta bertakoen esku, zirku arte guztiak egikaritzeko eremu aproposak antolatuko direlarik. Monozikloarekin trialean eta saskibaloian ari-

UNAI SAENZ PECIÑA, MALABARISTA: “ATZERRIAN LORTU NUEN HEMEN IKASITAKOA ABERASTEA”

PILOTEKIN, BERE JOKO MALABARE PREZIATUENAREKIN, MURGILDU ZEN UNAI SAENZ PECIÑA (GASTEIZ, 1980) ZIRKU ARTEETAN. EUSKAL HERRIKO KALE ETA ESZENATOKIETAN ARITU OSTEAN KANARIAR IRLAK ETA ARGENTINA EZAGUTZEKO AUKERA IZAN ZUEN. BERTAN, BUENOS AIRESEKO ZIRKU ESKOLA BATEAN IKASI ETA HEGO AMERIKAN ZEHAR BIDAIATZERI EGIN ZION. BATA ZEIN BESTEA ESPERIENTZIA EZIN ABERASGARRIAGOAK. MOMENTU HONETAN BIDAIK ATZEAN UTZI ETA BURU-BELARRI ARI DA UNAI SAENZ PECIÑA GASTEIZEN OSPATUKO DEN TOPAKETA ANTOLATZEN.

Noiz eta nola sartu zinen malabarismoaren mundu honetan?

Hamalau edo hamabost urterekin gutxi gorabehera. Hasieran tontoarena egiten, hiru pilotekin nire logelan... eta gero, apurka-apurka, hasi nintzen topaketetara joaten eta ikuskizunak prestatzen. Egun batean konturatu nintzen denbora asko neramala honetan.

Nola definituko zenuke zure lanbidea?

Lanbide bezala alde asko dauzka. Denetarik egitea tokatzen zaizu: zure saioaren gidoia prestatzea, jantziak, eszenografia... Oso lanbide sortzailea da. Bestetik, oso garrantzitsua da esatea ez dela lanbide bat non soldata ziurra daukazu.

Posible da kale artista moduan ondo bizitzea?

Bai. Kalean lan egiten duen jendearen artean denetarik dago... Baina ikuskizun izugarriak dituzten pertsonak ezagutzen ditut, beti kalean aritzen direnak.

Zirku arteak ikasteko helburuarekin maletak hartu eta Argentinara abiatu zinen. Zer-nolakoa izan zen esperientzia?

Hemen ikasitakoa aberastea lortu nuen. Hilabete batzuk eman nituen zirku eskola batean eta gero bidaiatzeari ekin nion. Motxila hartu eta bidaiatzea. Jende guztiari gomendatuko nioke horrelako esperientzia bat bizitzea; atzerrira joatea “zurea” aberastera.



Zein da zure joko malabararik gustukoena?

Pilotak. Swing egitea ere gustatzen zait, mazoa eta kariokekin egin daitekeen dantza bat da.

Hainbat ikuskizun sortu dituzu...

Ikuskizun ugaritan parte hartu dut, eta gero, batez ere ikuskizun motzak prestatu ditut, galetan aurkezten direnak. Gainera, beste hiru saio luze sortu ditut: ‘Le entertainment system’, duela urte dezente prestatutakoa; ‘Nai malabarista’,

umeei zuzendurikoa; eta ‘Realidad virtual’, iaz aurkeztutakoa. Momentu honetan “kit-kat” bat egin dut nire bizitzan, topaketa murgilduta nago guztiz..

Ikuskizunez gain Nai pertsonaia sortu zenuen. Nor da Nai?

Nai makillaje bat duen pertsonaia da batez ere, era desberdinetan ager daitekeena. Nai mimoa da, dantzaria da, Erdi Aroko pertsonaia... Berezitasuna makillajea da, horrek ematen dio pertsonalitatea pertsonariari. Saioa sortzearen beharraz sortu da Nai. Berez, emanaldiak prestatzerakoan ideia ugari izan ditut eta hortik hasi da garatzen Nai.

Zeintzuk dira malabarista on baten ezaugarriak?

Gogoia, irmotasuna, pazientzia eta apur bat burugogorra izatea. Ez da fisiko berezirik behar. Nahi izanez gero edonor izan daiteke malabarista. Are gehiago, malabarista on bat izateko ez dituzu derrigorrez gauza handiak egin behar; egiten duzuna txukun eta garbi egitean dago koska.

Kalean edo eszenatoki batean... zein da zure medio naturala?

Bietan aritzen naiz, edonola ere, kontratatua. Jada ez dut gorra pasatzen. Hala ere, ez diot bakarrik diruari begiratzen, baina begiratu beharra dago honetatik bizi nahi baduzu. Lanbidetzat hartzeaz gain malabarismoa nire hobbia ere bada; gustatzen zaidalako egiten dut.



- Zer?

32. Malabaristen Europako Topaketa

- Non?

Gasteizen, Mendizabalako azoka-lekuan

- Noiz?

Uztailaren 4tik 12ra

- Zenbat?

Dozenaka ikuskizun dohain; gala nagusia: 20 euro; eguneroko galak: 10 euro; egun osoko sarrera: 12-17 euro; Topaketa osoan parte hartzeko izen ematea: 100 euro inguru.

- Norentzat?

Denontzat; malabarista profesional zein malabarismoaz ezer ez dakitenentzat.

- Zergatik?

Arte zirkuak ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen delako.

- Zertarako?

Partekatze, gozatzeko, ikasteko, aho zabalik geratzeko...

tzeko kantxak, suarekin eta aire elementuekin praktikatzen diren eremuak eta haurrentzako gunea, besteak beste. "Aste honetan denetarik ikusiko da Gasteizen: helduentzako saioak, umeei zuzendurikoak... zaila litzateke beste egoera batean Euskal Herrian horrelako ikuskizunez gozatzeko parada izatea", jakin-gura pizten saiatzen da Patxi Fadrique.

Eszenatoki zein kaleetan... ikuskizuna!

Hogeita lau orduz irekita egongo den pabilioan nahi bezainbeste praktikatzen diren aukera izango dute oso urrutetik eta Euskal Herriatik bertatik etorritako milaka malabaristak. Ez dira baina, Mendizorrotza aldean geratuko, Gasteiz koloreztatzen diren tresnak ekarri eta erabiliko dituzte. Denetarik egongo da: bat-bateko ikuskizunak, kalejirak, musika, lehiaketak, olinpiadak... Australia, Japonia edo Ipar Amerikako artistek kaleak eszenatoki bihurtuko dituzte; guztira lau mila partaide espero dira. Izan ere, antolatzaileen iritziz Gasteizek duen tamaina eta biztanle kopurua aintzat hartuta hiri osoan igarriko da malabaristen presentzia. Malabareak maitatzeaz gain, bidaiatzea gustuko izan ohi dute horrelako topaketetan biltzen direnek. "Jendea oso irekia da mundu honetan... filosofia edo bizimodu berezia, agian. Topaketan parte hartzeko bakoitzak bere arrazoiak ditu: birmotibatzea izan daiteke

helburua edo mundu hau ezagutu eta maitemintzeko. Edonola ere, ikasi eta irakasteko asmoz biltzen gara horrelakoetan", parte hartzaile gontzatuak gaitu Ana Break. Izan ere, "etorriko diren guztiak ondo pasatzera eta partekatzaile gaituz", itxaropentsu azaltzen da Fadrique.

Gonbidapen irekia

Malabaristentzat eta malabarista ez direnentzat prestatutako jaialdia da. Gainera, aurtengoa inoiz izandako edizioarik parte-hartzaileena izatea da asmoa. Ikusleek gain boluntarioen lana eskertzeko da oso Ana Brearen esanetan. "Ezinezkoa litzateke bestela horrelako topaketa Gasteizera ekartzea", argitzen du. Boluntarioa izateko jai giroan ondo pasatzeko gogoia baino ez da behar. Hala ere, www.ejc2009.org webgunean izena ematea eskertuko lukete antolatzaileek baina Mendizabalara hurbiltzen den edozeini betebeharren bat egokituko diotela nabarmentzen dute. Izan ere, diru laguntzak lortzeko erraztasun gutxi izan zituzten hasieran. "Jaialdi ezezaguna da eta zailtasun ugari izan ditugu ekarriko duguna azaltzeko orduan", zehazten du Unai Saenz Peciña EJC Elkarte Kulturalaren idazkariak. Azkenean, ordea, Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundiaren laguntza jaso dute●

MARTA FERNANDEZ DE VALDERRAMA, DENDARIA HEGOARTE, PROIEKTU BATEN BIGARREN GELTOKIA

ERREMENTARI KALEAN AURKITU DU MARTA FERNANDEZ DE VALDERRAMAK (BURGOS, 1965) BERE TXOKOA GASTEIZEN. BRUSELA, ALEMANIA, BELFAST ETA TOLEDO EZAGUTU ONDOREN ARABAKO HIRIBURURA HELDU ZEN DUELA SEI URTE, ETA DAGOENEO, HIRU URTE DIRA HEGOARTE IZENENKO DENDA IREKI ZUENETIK. JOKO MALABAREAK, MAGIA ARTIKULUAK, KOMETAK, ARTISAUTZA ETA KOLOREDUN ARROPAK DITU SALGAI GEUK BISITATU DUEN DENDA TXIKI, DOTORE ETA BEREZI HONETAN.



Malabareak, magia, kometak... zergatik aukeratu zenituen horren artikulak bereziak?

Azokaz azoka ibili naiz urtetan baina zailtasunak egunero areagotuz zihoazen, gastuak gero eta handiagoak ziren. Leku finko batean denda bat irekitzeko ausardia izan nuen orduan; lehenengo denda, Artesur, Burgosen ireki nuen. Gero, Gasteizera aldatu eta Hegoarte izena aukeratu nuen.

Non lortzen dituzu joko malabareak?

Bartzelonan, Madrilan, Asturiasen eta Burgosen hainbat hornitzaile daukat. Orobat, artisau batzuek makil txinatarrak eta kariokak egiten dizkirate.

Nolakoak dira zure bezeroak?

Batetik, Errementari kaletik pasatzen dire-

nei koloreek arreta ematen diete; batzuk sartu egiten dira dagoena ezagutzeko gogoz. Bestetik, bezero finko batzuk lortu ditut jada eta beste asko lagunek gomendatuta heltzen dira.

Malabarista profesionalak joko malabareak erosi edo eraikitzen dituzte?

Batzuk oso mainatsuak dira eta trebetasun handiz egiten dituzte euren malabareak. Baina sua erabiltzea gustuko dutenei lana konplikatu egiten zaie, eta orduan dendaren batera jo behar izaten dute. Malabare jokoetan ondo moldatzen direnek bereziki preziatzen dituzte dendan ditudan artisautza artikulak.

Trebea al zara malabare jokoekin?

Ez, horretarako denbora eta pazientzia behar da; horregatik dauzkat argibide

liburuak. Gai naiz, ordea, belarritakoak konpondu eta apaintzeko.

Saltzen dituzun artikulak erabiltzen ikasteko tailerrak antolatu al dituzu noizbait?

Uztailaren 8an antolatuko ditugu estreinakoz. Malabaristen topaketa aprobetxatuz "ate irekien jardunaldi" moduko bat prestatu dugu. Artikuluak kalean erabiltzeko aukera egongo da arratsaldeko bostetatik zortzietara.

ANGELA JIMENEZ:

HIZKUNTZAK MAITE DITU 35 URTEKO ALEMANIAR FILOLOGO HONEK. KORDOBAKO BAENA HERRIA DU SORTERRI ETA URTERO BUELTATZEN DEN ARREN, SUSTRAIAK HAN BAITITU, MUNDUKO HIRITARRA DELA ESAN DAITEKE. ALEMANIAN BIZITZEN IBILIA DA ETA ALEMANIERAZ GAIN BERE BIZITZAN ZEHAR HAINBAT HIZKUNTZA IKASI IZAN DITU, ITALIERA, ARABIERA, INGELESA, FRANTSESA... BAITA EUSKARA ERE.

“Hizkuntza bat bizirik manten dadin erabili behar da”

t. ane pedruzo a. edorta sanz

2000. urtean lana zela eta, Euskal Herrira heldu zen. Gasteiz eta Donostia artean ibili da urtetan eta garai hartan ezagutu zituen sagardoa, pintxoak, “ur izoztutun euskal hondartzak” eta *agur* edo *txapela* bezalako hitzak. Bost urtetik hona, Gasteizen bizi da nahiz eta egunero Bilbora dihoan Hizkuntza Eskolan alemaniera klaseak ematera. Gogotsu dabil euskara ikasten eta hainbat barnetegitan egon ostean, gaur egun, mintzalaguna da. Honez gain euskaltegira eta Hizkuntza Eskolara ere badoa euskaraz trebatzera. GEUrekin hainbat esperientzia eta gogoeta partekatu ditu...

Duzun biziorik handiena? Bat bakarrik? Nire ama-hizkuntzaz gain, egunerokotasunean gutxienez bigarren hizkuntza batean hitz egitea beharrezkoa dut... Bestela aspertzen naiz.

Bertuterik? Moldagarria naiz.

Akatsik? Ez naiz batere puntuala.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Alaitasuna, berotasuna eta gogoia edozeri aurre egin ahal izateko.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Gauza gutxi... Oso lasaia naiz... Axolagabekeriak beharbada.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk? Noiztik? Bai, baina ez dakit noiztik... Ez zait erraza suertatzen aldizkaria aurkitzea, bilatu behar dut...

Egunkari bat? Ez dut egunkaririk irakurtzen.

Telebista saio bat? Telebista gorrotzen dut. Garai batean telebistarik gabe oso pozik bizi izan nintzen... Gaur egun asko jota hilabete hiru-tan edo ikusten dut. Telebista ikusten haserretzen naiz. Zaborra informazioarekin nahasten da, balore okerrak transmititzen dira eta gizartea lelotzen du.

Beldurrik? Beldurra asmatu eta sinesteari beldur diot, beldur izatearen beldur naiz.

Oporrak non eta zertarako? Ahalik eta urrunen baina hori bai, eguzkia dagoen toki batera. Niretzat oporrak izugarri garrantzitsuak dira urte osoari aurre egiteko indarrak hartzeko.

Nora ez zinateke joango? Estatu Batuetara. Hango gizartea ez zait batere deigarria suertatzen.

Eguna ala gaua? Eguna. Probetxagarriagoa iruditzen zait, sasoi nago egunean zehar.

Gasteizko gaua non? Ez dut toki finkorik, aldatuz noa.

Liburu bat? Zaila da... Paul Celan-en poesiak gustatzen zaizkit.

Film bat? zergatik? ...

Edari bat? *Blanco y negro*. Valentzian egiten dute, esne-gain izozkia eta kafe nahasketa bat da.

Janari bat? Salmorejoa noski!! Eta berenjena edota patatarekin batera bada askoz hobeto! Kordobako plater tipikoa da.

Kolore bat? Berdea.

Musika talde bat? Goran Bregovic.

Kirol bat? Bizikletaz ibiltzea, parapentea... Gaur egun taiji-a egiten dut.



Zer da Gasteizek duen onena? Gune berdeak. **Txarrena?** Negua. Nik eguzkia eta argitasuna behar-beharrezkoak ditut. Euria, eguraldi aldaketak... ez zaizkit batere gustatzen.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Beno.... Euskara bilatu behar da eta ez duzu edozein toki zein egoeratan aurkitzen. Hizkuntza bat bizirik manten dadin erabili behar da.

Zergatik hasi zinen euskara ikasten? Kuriositateagatik, hizkuntzak gustuko ditut eta ezagutu nahi nuen. Gainera etorkizun batean semeari laguntzeko erabilgarria suertatuko zait, baita lanerako ere. Oso hizkuntza ederra iruditzen zait, hiztegi errazekoa, egitura paraleloak dauzka... aditzak eta gainontzeko gramatika ez dira batere errazak baina!


Zer zailagoa, alemana edo euskara? Hizkuntza bat ez da zaila edo erraza, pertsonen araberakoa da hizkuntzen ikasketa prozesua. Bakoitzak bere gaitasunak dauzka eta moldagarriak zaizkion hizkuntzak bilatu behar ditu.

Amets bat? Indiarra joatea.

Amesgaizto bat? Gaixotzea.

Iragana, eguna ala etorkizuna? Etorkizuna, baina beti ere egunaz gozatuz.

Zer eskatzen du herriak? Oreka puntu bat topatzea pobrezia saihesteko ●



Bai Euskarari Ziurtagiria

balioa eta berrikuntza · valor e innovación

1.600 entitate baino gehiago ziur daude



ziurtagiriaren elkartea
902 430026

baieuskarari.org





HERIOTZARI ABEGI

M^a JOSE ALMARAZ & ELENA ABASCAL:

“PERTSONEN AZKENAREN ZUZENNEKO LEKUKO GARA”

BI AHIZPA OMEN ZIREN, ITSAS BAZTERREAN BIZI ZIREN BI AHIZPA MARATZ ETA XARMANT, ETA BIZITZA ETA HERIOTZA ZUTEN IZENA. ELKARREKIN ONGI KONPONTZEN ZIRENEZ ETA GIZON UGARI HURBILTZEN ZITZAIENEZ, ITUN BAT EGIN ZUTEN: AMODIOTAN IBIL ZITEZKEEN BAINA EZ ZIREN SEKULA BEREIZIKO. HALA BADA, INGURUMARIKO JALETARA ESKALAPOIAK JAN-TZIRIK JOATEN ZIREN, ESKUETAN OINETAKO DISTIRATSUAK, ETA PLAZARA IRTETEKO ALDATU EGITEN ZITUZTEN: OINETAKO ZURIAK HERIOTZAK ETA BELTZAK BIZITZAK. ETA ATZERA ESKALAPOIAK JANZTEN ZITUZTEN ETXERATZEKO ETA, BAKARRERAN EDO ELKARREKIN, GOIZ EDO BERANDU, BETI ITZULI IZAN ZIREN. GAU BATEZ, NAUFRAGIO BAT GERTATU ZEN ETA OLATUEK ITSASONTZIKO ZAMA HONDARTZARAINO ERAMAN ZUTEN, DOZENAKA, EHUNDAKA AKORDEOI BIRIKEN ANTZERA ZABALDU ETA ITXI EGITEN ZIRENAK, ETA HALAKO DOINU IKARAGARRIA ZABALTZEN ZUTENAK. GUZTIEN ARTEAN BAT KALTE HANDIEGIRIK GABE HELDU ZEN ETA ARRANTZALE GAZTE SEGAIL BATEK TOPATU ZUEN, BAITA JOTZEN IKASI ERE. ETA GAZTE HARETXEKKIN MAITEMINDU ZEN BIZITZA, HALAKO MOLDEZ NON HERIOTZAREKIN ZUEN ITUNA HAUTSI EGIN BAITZUEN. ALABAINA, BIZITZAK ONGITXO ZEKIEN AHIZPA ALDARTE TXARREKOA ZELA, ETA MENDEKUZALEA, ETA IHESI JOAN BEHAR IZAN ZUEN GAZTEAREKIN BATERA. HARREZKERO HERIOTZA BIDERIK BIDE DABIL, BATIK BAT GAU EKAIZTSUETAN, ETA ETXE ATARIETAN ESKALAPOIAK IKUSTEN DITUELARIK, GELDITU ETA BERTAKOEI GALDETZEN DIE: “EZAGUTZEN AL DUZU SOINUJOLE GAZTE BAT ETA BIZITZA IZENENKO URDANGA BAT?”. ETA GALDERA JASO DUENA AKABATU EGITEN DU GERO.





t. patxi zubizarreta

a. edorta sanz

Bi ahizpa dirudite, baina ez dira; biak ala biak ere gasteiztarrak dira, baina, eta Txagorritxu ospitaleko Zainketa Paliati-boen atalean bederatzi urte igaro dituzte elkarrekin; Maria Jose Almaraz eta Elena Abascal dute izena, eta zuriz janzten da bata eta urdinez bestea; Manuel Rivasen ipuineko Heriotzaren galdera jasotzen dutenekin egiten dute lan, eta haren bi ahizpen antze-ra halako itun bat egina dute: sendabiderik ez duten gaixoen -ez hilzorikoak soilik- eta haien ahaideen azken aldia eramangarriago, duinago eta gizatiarrago egitea.

“**sendagileek, oro har, heriotza frakasotzat dute; guk, oster, aintzat hartzen dugu, mistikeriarik gabe**

“Plaza lortu genuelarik, hasiera hartan, bulegorik gabe eta toki finikorik gabe hasi ginen. Lankideek ez zuten gure lana ulertzen, berria baitzen, eta berritzailea. Sendagile bakoitzak gaixotasunari erreparatzen dio, baina guk gaixoa osotasunean hartzen dugu. Minak, oinazeak profesionalok ere hunkitzen gaitu, baita hondoratu ere zenbaitetan, baina gure erantzunetan ez dugu hizkuntza tekniko zurrunik erabiltzen. Komunikazioa bilatzen dugu, hurbiltasuna, lagun egitea, eta harreman horrek nora ezean uzten du hainbat aditu. Sendagileek, oro har, heriotza frakasotzat dute; guk, oster, aintzat hartzen dugu eta

heriotzaabegi

mistikeriarik gabe abegi egiten saiatzen gara”, diote, pausatuki, adeitsu-ki, eta norberak ez daki bietan zein mintzatu den, hari bera, kadentzia bera osatzen baitute.

Barne medikuntza ikasi zuen M^a Josek eta Txagorritxun MIRa egiten ari zela ezagutu zuen Elena, hura ere barne medikuntza atalean aritzen baitzen. Goizeko 8etatik arratsaldeko 3rak arte aritzen dira -ordua hori dute, baina ez dakite 3retan irtetea zer den-, gaixoe-kin gelan buruz buru, bulegoan haiekin eta senideekin, edo deiei erantzuten: “Larri baldin badaude, ez dezaten itxaron beharrik saiatzen gara edo profesional egokiarekin zuzeneko harremana bideratzen dugu”. Baina batik bat ospitalean aritzen dira, edozein

solairutan, edozein eratako gaixoe-kin: “Zertan lagun zaitzaketa?”. Diotenez, gaixo batzuek egia osoa jakin nahi izaten dute, eta badute jakiteko eskubidea, noski, baina baita dena jakin beharra ez izateko ere. “Batzuek *Cancer* entzun eta *Kaprikornio* ulertzen dute, ez dute jabetu nahi, ezin kontzienteki onartu. Guk, guk sendatu ez..., esaten diegu”. Aitzitik, familiari egia esan behar diote, egia berdaderoa, eta haiekin ere gertutik jardun beharra daukate. “Kontraesan ikaragarria bizi dute. Sarritan ahaidea egoera penagarri horretan ikusirik, heriotza lehenbailehen etortzea nahi izaten dute, baina gero beldur dira, unearen beldur... Damuaren beldur ere izaten dira: akaso ez dugu ahal genuen guztia egin”.

Ohearen inguruan sarritan komunikazio falta sumatzen dute, naturaltasunik eza. Senideak ez dira negar egitera ausartzen, ez diote eriarri eragin nahi, eta badirudi ez dela ezer gertatzen; baina gerta daiteke gaixoak ohetik ere ingurukoak manipulatzeko jarraitzea, inguruko- en ongietza sortzea. “Hasieran gaixoaren eta etxekoaren arteko harremanak bideratzen saiatzen ginen, baina beranduegi izan ohi da. Ezin gaizki ikusiak eta gaizki ulertuak epe laburrean konpondu. Gure helburuak arrazoizkoak dira: sintomak kontrolatu, oinazea eztitu eta azkena erosoko egitea”.

Akabera batzuk guztiz larriak izaten dira; beste batzuk, oster, eredugarriak. Hil hurrenak bizitzari



Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

azken gainbegiratua eman dio, zeharka edo zuzenean mundualdiko unerik gogoangarrienak aipatu ditu eta, adierazi ere, adierazi du nola nahi lukeen familiakoei jarraitzea. Testamendu emozionala esaten diote horri. “Noiz edo noiz gu ere erabiltzen gaituzte. Guri kontatzen digute, bai baitakite gu kontakatilu hutsak garela eta familiakoei denaren berri xehea emango diegula...”. Zenbaitetan, goia jotzen du sendagile-erizainen harridurak: UZIn dagoen amona batek itxaron egin dezake bilobak jaunartzea egin duela jakin arte, edo asteburua kosta ahala kosta igaro hiltzeko unean M^a Jose edo Elena alboan izan dezaten, baina bada erabateko bakardadean hil nahi duenik ere. Eta, ororen buru, paperean *Exitus* idatziko dute hildakoaren izenaren alboan, edo *Exitus letalis*, eta bihotzean beste zimiko bat sentituz, familiarekin dolua prestatzen hasi beharko dute.

“

gaixotasuna, heriotzaren ataka haiena da, nork bere momentua du, eta guk distantzia egokia hartu behar dugu, gure bizitzara itzuli

Akaberak bezala, gaixoak askotarikoak dira. “Haurren heriotza izaten da eramaten nekezena, eta bai eredu-garria zenbait gurasoren jokamoldea: Ez dezala gehiago sufritu, utzi joaten...”. Etorkinekin ere ezintasun handia sumatzen dute: hona bizi

proiektu batekin etorri dira, baina, horra, finean, erabateko porrota, eta, gainera, ezin adierazia... “Ijitoak, azkenik, guztiz nabarmenak dira: ile tiradizoak, arropa urratuak, hildakoa besarkatu beharra, eta jendetza... Eta guztiekin ere ikasi guk, baina etena eta bereizketa ezinbestekoak zaizkigu: gaixotasuna, heriotzaren ataka haiena da, nork bere momentua du, eta guk distantzia egokia hartu behar dugu, gure bizitzara itzuli, eta goizeko 8etarako atzera indartuta agertu. Funtsean pribilegiatuak sentitzen gara; pertsonak, gauzak, dena gehiago preziatzen dugu eta gaixoei hobe ki bizitzen laguntzen digute”.

Ospitaletik kanpo ere deitzen diete, ikastaroak-eta eman ditzaten, beste egoitza batzuetako hiltzariak hobeki bizi daitezten. “Laguntzaileei film zatiak ipintzen dizkiegu, hala nola Isabel Coixeten ‘Mi vida sin mí’ edo ‘El doctor’ filmetakoak, baina Mike Nichols-en ‘Amar la vida’ osorik jartzen dugu”. Eta filmekin batera, liburuak: Elisabeth Kübler-Rosse edo Cicely Saunders-enak. Eta ospitaletik kanpo zein barnean, aldarri ozen bat: “Pertsonok ongi zainduak izateko eskubidea dugu, noski, baina baita behar bezala hiltzeko eskubidea ere. Osasun zentroetan zainketa paliatiboak behar-beharrezkoak dira eta, alor horretan, gabeziak oso nabarmenak dira. Batzuetan oso bakarrik sentitzen gara, badirudi hutsari kolpeka ari garela, eta agian, agintari berriekin...”. Baina ezin amaitu, edo bai: dagoeneko norbait kosk-kosk ari da. Ate joka●



GASTEIZKO JAZZALDIA

t./a. ane pedruzo

AURTENGO UZTAILEAN ARTEA ETA KULTURA DIRA GASTEIZKO PROTAGONISTA NAGUSIAK. IZAN ERE, HILAREN 4TIK 12RA BITARTEAN HIRIA MALABARE JAIALDIAREN LEKUKO IZANGO DA ETA ONDOREN, 12TIK 18RA, JAZZ JAIALDIARI EGINGO DIO HARRERA.

Zirku-jokoen, akrobazien... eta bestelako ikuskizunen 32. edizioa da aurtengoa. Jazzaldia ordeztu, urtebete zaharragoa da. Izan ere, 33 urte dira jaio zenetik eta dagoeneko guztiz erroturik dagoen jazoera dugu. Besteak beste, Wynton Marsalis, Diego Amador, Jorge Rossy edo Stefano di Battista Quartet dira aurtengo kartela osatzen duten musikariak eta eurei dagokie Mendizorrotzako inguruak girotzea. Baina... Gasteizen jazz zaleak al gara? Edo malabareak nahiago ditugu?

1. Jazz-a gustuko al duzu?

2. Jaialdian egonda zaude? Aurten joateko asmorik?

3. Malabareak edo jazz-a?



IÑIGO SAIZ, 24 URTE, BIOLOGOA

1. Taldearen arabera... Musikaria naiz baina ez dut sekula jazz estilorik jo, beste estiloak nahiago ditut.
2. Behin Ortophonk eta beste hainbat talde ikustera gonbidatu ninduten. Ordutik ez naiz bueltatu. Garestia da eta egiten den egunetan beste zerbait egiten nabil edo oporretan.
3. Jazz-a. Malabareak hamar minututan zehar ikusteko ondo daude, baina gehiago eta era jarraituan ez...



NIEVES NUÑEZ, 32 URTE, ERIZAIN LAGUNTZAILA

1. Bai gustatzen zait, musika berezi eta desberdina da.
2. Aspaldi joan nintzen... ez dut gogoratzen zein entzutera. Aurten ez dut uste joango naizenik.
3. Jazz-a. Musikak sentimenduak eragiten dizkit, gehiago inspiratzen nau.



YAMILETH VALENZUELA, 32 URTE, OSTALARIA

1. Beno... gutxi gorabehera. Sakonki ezagutzen ez dudana musika estilo bat da, ez da nire gustukoena...
2. Ez naiz sekula joan. Halere, lan egiten dudana tabernan jazz musikariak jotzen izan direnean gustukoa suertatu zait... Aurten ez dut joateko astirik.
3. Jazz-a. Musikak gehiago erakartzen nau.



WWW.AISETU.ORG

ARABAKO BEGIRALE EUSKALDUNEN LAN-POLTSA

EUSKHARAN ELKARTEAK, ARABAKO DENON ESKOLAK, EUSKALKIDETZAK ETA GEU ELKARTEAK, GASTEIZKO UDALA ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAZ, BEGIRALE EUSKALDUNEN PROGRAMA JARRI DUTE MARTXAN AURTEN LEHENENGOZ. EBPNREN (EUSKARAREN BIZIBERRITZE PLAN NAGUSIA) BARRUAN SORTU DA, HEZKUNTZA, FAMILIA ETA AISIALDIAN ERAGITEKO ARLOAN KOKA DEZAKEGULARIK.

begiraleak behar ditugu

GUSTUKO DUZU KIROLAN BAT? KULTUR JARDUERARIK? DAGOENOKO BEGIRALE ZABILTZA? KIROL EDO ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN BEGIRALE JARDUN NAHI DUZU?

Euskalduna bazara, 17 urtetik gora baduzu eta kirol begiralea edo eskolaz kanpoko ekintzaren batean aritzeko ezagupenik baduzu, sartu zure kurrikulua webgunean.

Baina zertarako? Bada, Arabako eta Gasteizko ikastola eta eskoletan zailtasunak dituzte begiraleak topatzeko ikasturtearen hasieran, horrexegatik begirale-zerrenda martxan jarriko da ekainetik aurrera. Zerrenda horren bidez lortu nahi dugu harremanetan jartzea eskolak eta begiraleak eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza asetzeko irailetik aurrera. Proiektu hau hasi gara jorratzen hainbat eragile, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udaren laguntzaz. Animatu eta sartu zure datuak!

izena eman
www.aisetu.org
Informazioa: Geu Gasteiz 945 222 153

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



t. ainhoa arriaga

a. edorta sanz & artxibo

2009ko otsailean hainbat eskola eta guraso elkarterekin bildu eta begirale euskaldunak topatzeko egitasmoa diseinatu zen, aspalditik zetorren kezka aurre egiteko asmoz.

Egitasmoak Arabako begirale euskaldunen zerrenda osatzea du helburu, datorren ikasturte hasieran hala eskatzen duten Arabako ikastetxe eta elkarte-ek zerrenda eskaintzeko asmoarekin. WWW.AISETU.ORG webgunean dute begirale euskaldunek lan-poltsa honetan parte hartzeko aukera. Izan ere, bertan, WWW.BILALAN.NET/ARABA deituri-ko lotura aurkituko dute eta bertatik kudeatuko da datu-basea. Erreminta erraz eta azkar honetan lan egin nahi duten Arabako eskualdea aukeratu eta kurrikuluma osatzeko aukera izango dute, sailez sail hutsuneak betez. Deialdia 17 urtetik gorako euskaldunen-tzat zabaldu da; kirol begiraleak edota eskolaz kanpoko ekintzaren batean aritzeko ezagupenik dutenentzat.

Eskolaz kanpoko ekintzei dagokiene-

an, gehien errepikatzen diren beharrak kirol eta kultur arlokoak dira. Kirolean batez ere, Saskibaloia, Futbola, Gimnasia erritmikoa, Irriaketa, Igeriketa, Pilota, Xakea, Judoa, Kirol anitza, Aerobika, Eskubaloia eta Tenisa.

30 bat begirale euskaldunek eman dute izena zerrendan

Kultur arlokoak aldiz, Abesbatza, Buztingintza, Margogintza, Dantzak, Txistua, Musika, Musika hastapena, Antzerkia, Txalaparta, Ingelesa, Euskara, Euskal kultur tailerra eta Gorputz adierazpenean dira behar gehien.

GEU elkarteak hartuko du begirale euskaldunen zerrenda kudeatzeko ardurara eta iraila partean zerrenda osatuaren eskaintza egingo zaie ikastetxe eta beharra duten elkarte edo erakundeei.

Egitasmoa sarean martxan jarri zenez, ekainaren 1etik, 30 bat begirale euskaldunek eman dute izena zerrendan. Adierazle esanguratsua honakoa, komunikazio arazoa konpontzeko bidean gabiltzan seinale. Hori da hain zuzen helburua, lan bila dabilzan begiraleen eta begirale bila dabilzan arteko bitartekari lana egitea, alegia.

“

begirale euskaldun kontzientziatuak beharrezkoak dira



EUSKHARAN ELKARTEA
AMAIA ZENTROA
 Benito Perez Galdos z/g
 01002 GASTEIZ
 945 288275
 euskhara@euskalnet.net



EUSKHARAN



DENON ESKOLA
 Florida kalea 62-A 2º Gasteiz
 945 256 162
 info@denoneskola.org



DENON ESKOLA

EUSKHARAN elkarte, Aranbizkarra, Arantzabela eta Aranbideko auzunean euskararen erabilera bultzatzeko sortu zen 1998. urtean. Orduztik, asko izan dira euskararen erabileran eragiteko egindako lanak: kulturgintzan eta aisialdian jardun, helduen euskalduntzean, ikus-entzunezkoak... "Eskolaz kanpoko ekintzetan eta Aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko agente aktibo garrantzitsuak dira begiraleak. Euskararekiko harremana ezin da amaitu txirrina jotzean, bestela jai dugu. Begirale euskaldun kontzientziatuak beharrezkoak dira", azaltzen digu Euskhareneko kidea den Oihane Pereak. Horregatik, 2004. urtetik begiraleei zuzendutako ikastaroak antolatzen dituzte; 100 begirale euskaldunetik gora formatu ditu dagoeneko Euskharenek. Aurtengo ekainean antolatu dute jada bosgarren ikastaroa Urtxintxa eskolarekin elkarlanean: "Eskolaz kanpoko ekintzetan euskara sustatzen" formazio ikastaroa.

"Aurka-apurka hiriko beharrak asetzeko moduko begirale poltsa bat sortzea lortu nahi dugu eta begirale horien formazioa eta kontzientziazioa ziurtatu. Bitartekoak behar dira antolatzaileak eta begiraleak kontaktuan jartzeko eta hizkuntzarekiko kontzientzia lantzeko".

DENON ESKOLA, Arabako Ikastetxe publikoetako guraso elkarten federazioa, 1997an sortu zen Euskal Eskola publikoa defendatzeko helburuarekin. Arabako guraso elkarte gehienak batzen eta ordezkatzeko dituzte, beraz ezinbestekoa izan da bere partaidetza programa arrakastatsua lortzeko.

Federazioa, Arabako guraso elkarten arteko komunikazioaz arduratuko da, uneoro izango dituzten proiektuaren inguruan informatuta eta gurasoen iradokizunak lan-taldeari igortzeko prestatuko da lanean. Plataformaren erabilera sustatuko du guraso elkarten artean eta parte-hartzeko bidez aholkularitza eskainiko die.



EUSKALKIDETZA

euskalkidetza@bilalan.net

944 029 834



EUSKALKIDETZA

Programaren azpiegitura teknikorako EUSKALKIDETZA kooperatiba daukagu ezinbesteko eragile. 2000. urtean sortu zen "arlotz sozio-ekonomikoan euskarazko zerbitzuak sortu eta sortzen laguntzeko" helburuarekin. Orain dela 4 urte Bilalan tresna informatikoa sortu zuten, euskaldunen eta euskarazko gaur egungo lan atari bakarria izango zena. "Euskara lan esparruan zabaltzeko asmoarekin sortu genuen, lāngile euskaldunek lana euskaraz lortzen laguntzearen eta enpresek eta instituzioek ere beren lan eskaintzak euskaraz egin eta iragarri ditzaten". Hilero 4.300 bisita egoten dira eta aditzera eman dutenez, urtero 20 bat lagunek lana aurkitzen dute atari honi esker.

www.bilalan.net



GEU elkarteak bere gain hartu du plataforma honen aukerak ezagutzera emateko, erabiltzen ikasteko eta mantentze lanak egiteko ardura. Aspalditik ibili da elkarte euskaldunen lan-poltsa aurrera eramateko asmoarekin eta hala egin du azken urtean azpiegitura tekniko barik eta baliabide gutxiarekin sortutako euskaldunen lan-poltsan. Horregatik, beste eragileekin indarrak batuz, egitasmoaren sustapen eta komunikazio alorraz arduratuko da, aholkularitza eta mantentze lanak egitearekin batera. Begirale euskaldunentzako harremanetarako kontaktua izango da, baita begiraleen beharra duten elkarteentzat ere.

GEU ELKARTEA

Pedro Asua 2-3.

01008 Gasteiz

geuelkartea@gm.es

945222153



GEU ELKARTEA



ARABA PLAZARA DANTZARA!

ARABAKO AURRESKU ETA DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA DANTZARIEN AGENDAN LEKUA HARTUZ JOAN DA URTEZ URTE. HITZORDUA MAIATZAREN 1EAN ESTIBALIZKO ZELAIETAN DUTE URTERO. AURTEN XVII. EDIZIOA IZAN DA. JOSU SANCHEZ IZAN ZEN AURRESKURIK HOBERENA ESKAINI ZUEN DANTZARIA ETA AITZOL ENA ETA MAITE LAZKANO GIPUZKOARREK OSATU ZUTEN DANTZA SUELTOKO BIKOTE IRABAZLEA. AZKEN DANTZA ESTILO HONETAN ARITU ZIREN ARABARREN ARTEAN, AZAITZ UNANUE ETA AIZKOA MADINABEITIA GAILENDU ZIREN. GAINERA, JANTZIRIK POLITENAREN SARIA ERE ESKURATU ZUTEN.

t. ane pedruzo a. artxibo

Josu, Azaitz eta Aizkoa Indarra kultur elkar- teko dantzariak dira, hirurak eskarmentu handikoak, euren ezagutzak dantzari ama- turrekin partekatzen dituztelarik. Azaitz eta Aizkoa lehengo aldia zuten dantza sueltoko txapelketan. Josurentzat, ordea, auresku lehiaketa ez zen gauza berria hainbat urtetan hartu baitu parte, baita beste behin irabazi ere (2007an).

Bat egiten dute horrelako txapelketen nora- bidiaz hitz egiterako orduan. Euren aburuz, dantza herritik urruntzen ari da horrelakoe- tan. "Txapelketa gehienetan egiten den dan- tza elitista da, espektakulua bilatzen da", dio Azaitzek. "Dantzari asko irabazteko soilik prestatzen dira eta hori ez da kontua... Ahazten dute dantzatzerakoan ondo pasa- tzen". Aizkoak gaineratzen duenez, dantzari on batek eszenatokian eta plazan dantzatzen jakin eta nahi izan behar du. Bietan.

Idea hauek buruan aurkeztu ziren Azaitz eta Aizkoa. Diotenez, zorrotasun eta forma- lismoen ginetik dantza suelta egiteko era gehiago daudela erakutsi nahi izan zuten. "Ondo pasatzera joan ginen eta ikusleek ere

gozatzea nahi genuen. Ondo pasatuz gauza polita eta errazak egin daitezkeela frogatzea genuen xede".

Arratia aldeko dantza batekin ausartu ziren. "Irribarre eta begiraden bitartez komunika- zioa bilatu genuen, elkarrekintza. Kaleko kutsua eman genion, xarma, dantzarekin jolastu genuen", azaltzen du Azaitzek.

Josuk aureskua nahiago izan zuen, edo- nork dantzatzen ez duen ohorezko dantza, alegia. Gainera, auresku arabarra behar zuen izan. Fin eta dotore aritu zen eta zortzikoan (aureskuaren laugarren zatian) arabar, gipuzkoar eta bizkaitar estiloen uztarketa bikaina eskaini zuen. "Azken zati honetan dantzariak euren ikutu pertsonala ematen dute eta hura izan zen nire aukera", argitu digu Sanchezek.

"Aurten iaz baino indar handiagoarekin aritu naiz eta hurrengoan are indartsuago azalduko naiz". Hitz hauekin datorren urtean Estibalizen berriz ere ikusteko aukera izango dugula aurreratu digu Josuk.

Azaitz eta Aizkoak, aldiz, ez dute hain argi. Euren helburua bete zuten eta horrekin nahi- koa dute. Azkenak geldituko zirela uste eta Arabako onenak suertatu izana behin sinetsi-



azaitz unanue eta aizkoa madinabeitia, dantza sueltoko

rik, orain Euskal Herri mailako txapelketara joan ala ez joatean datza euren zalantza. "Pentsatuko dugu".

Azaitz eta Aizkoa jantzirik politena erama- teagatik ere izan ziren sarituak eta ez da gutxirako. Izan ere, Tolosako Ganbara den- dan goiz oso bat eman zuten gustuko kolo- re, oihala eta osagarriak aukeratzen.

Elkarren arteko laudorioak anitzak dira maiatzeko dantza saioari buruz aritzean. Josuren ustetan, Azaitz eta Aizkoak dantza berezia egin zuten. "Horrelako zerbait ikuste- ko garaia zen, proposamen desberdinak eskertzeak dira", azpimarratzen du. "Josuk irabaziko zuela bagenekien, ez genuen duda- rik", gaineratzen du Madinabeitiak.

Seguruenik zalantzarik ere ez zuten izango txapelketaz gozatzerara joan ziren gure prota- gonisten adiskide, senide eta Indarra dantza taldeko lagunek. Josuk maitekiro gogoratzen du ateratako azken argazkia. "Indarrakoak



txapeldun arabarrak

geunden, jai giroan... oso polita izan zen". Aurtengo txapelketa Indarra kultur elkarterako lorpen garrantzitsua izan dela iritzi du Azaitzek. "Maila, gogoia, aniztasuna... ikusi zen". Eta guztiaren gainetik giro ona. Aizkoaren esanek talde bateratua osatzen dutela ematen dute aditzera, "ez gara dantza talde bat, farrak egiteko talde bat baizik, batzuek giroagatik jarraitzen dute dantzan! Kar, kar!". "Jendearen harrerak lagundu gintuen, hor zeudela jakiteak lasaitasuna eman zigun", gehitzen du Azaitzek.

Euskal dantzak pauso zehatz batzuk zorrozki jarraituz ikuskizuna eskaintzean soilik ez dautzala erakutsi digute Azaitz, Aizkoa eta Josuk. Dantzari hauen indarrak eta kemenak gozamenarekin egiten dute bat fandango eta arin arinaren doinua entzun bezain pronto eta beraientzat edozein herriko plaza eszenatoki-rik bikainena da.

Halere, euren meritua ukaezina da eta 2009. urtean behintzat Arabako dantzaririk onenak eurak dira ●

Josu Sanchez:

"Dantzan zailtasuna dut erronka"

Familia dantzari batean hazia, 22 urteko ingeles irakasle honentzat dantza bere kirol partikularra da. Gipuzkoako dantzak ditu gustuko ikusgarriak eta teknika handikoak direlako. Bere bizitzan musika du ardatz, izan ere, dantzan trebea izateaz gain, *Maldan bera* taldeko ahotsa eta gitarra ere bada.

Aizkoa Madinabeitia:

"Dantza nire bizitzako zati bat da"

Irakasle ikasketak burutu ditu Aizkoak. Urtetan baletean aritu ostean, euskal dantzak nahiago izan zituen 26 urteko gazte honek eta kantatzeko erritmorik ez duela aitortu digun arren, dantzari fina da. Eskulanetan ere trebea da. Txikitan artista izan nahi zuela zioen eta bide onetik doala ematen du.

Azaitz Unanue:

"Berbenetan inbidia pasatzen nuenez dantza ikasten hasi nintzen"

Dantzak asko eman diola dio 30 urteko biologoak. Lesioen beldur da, amorrua sentitzen baitu dantzatu ezin duenean. Indar handiko dantzak ditu nahiago, jotak edo paloteauak kasu. Bera ere indarrez dantzatzen duela ematen du praka anitz apurtu dituela kontatu baitigu! Ahots ona ere badu eta edozein aukera probetxuzkoa zaio kantuan hasteko. Besteak beste, *Azido folkloriko* musika taldean bera da abeslaria.



josu sanchez, auresku lehiaketaren txapelduna



★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Izardui komandantea 7 behe • 945 154 220



SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33



Jesus Guridi, 2
TI. 945 27 88 88 - 28 72 37
El Boulevard Merkatal Zentroa - TI.
945 068 888
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA

harategia
araindegia
frutategia
okindegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

Jose Luis
GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
www.estudioaltuna.com

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
esal@estudioaltuna.com

Florida kalea, 9 behe • 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



• Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
• Helduentzat • Dantza
• Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65
Abendaño kalea, 48 - TI: 945 22 34 33

Euskadik
behar zaitu



**EAJ
PNV**



Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net



Errege atea, 9 • GASTEIZ
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85




Madalena kalea, 2
TI: 945 13 27 20



Jantziak
San Antonio, 11 • TI. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • TI. 945 15 53 39



Jose Lejarreta 9 behe
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ



SAHARA

BIZITZA BEZAIN MIKATZA, MAITASUNA BEZAIN GOXOA ETA HERIOTZA BEZAIN LEUNA

MUNDUA BIDEGABEKERIAZ BETERIK DAGO. ESTATURIK GABEKO NAZIOAK, LURRALDERIK GABEKO HERRIAK... UGARIAK DIRA, GEHIEGI AGAIN, ETA HORIEN ARTEAN MENDEBALDEKO SAHARA. SAHARARREI ESTATUA ETA LURRALDEA BAHITU ZIZKIETEN. NORTASUNA ALDIZ BAHIEZINA DA ETA HERRIAK EZ DU SEKULA AMORERIK EMANGO.





haritz arrizabalaga eta karmele berriozabal



t. / a. ane pedruzo

Haritz Arrizabalaga eta Karmele Berriozabalek ez dute Mendebaldeko Saharako lurra ezagutzeko aukerarik izan. Bai, ordea, erbestean bizi den saharar herria. Aste santuan izan ziren Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan. Beste 70 gazterekin batera egin zuten bidaia. Guztiek Sahararen aldeko euskal plataforma bat abian jartzen dihardute bertako gazteriari begira kooperazio, komunikazio eta konpromiso bide berriak eraikitze-ko xedez. Horretarako, UJSARIOrekin elkar-lanean ari dira, Fronte Polisarioaren (nazioa askatzeko mugimendua) gazteriekin alegia. Ordutik euren ikuspegia zeharo aldatu da. “Drama horren protagonistek orain aurpegia dute, izen-abizenak, telefonoz deitzen zaituzte... jakitea eta sentitzea gauza desberdinak dira”, dio Haritzek.

Mendebaldeko Saharako gatazkak kolonialismoa du aitzindari. Europako inperialistek Afrika elkarbanatu zutenean Espainiak okupatu zuen lurraldea. Ondoren, 1975. urtean, Espainiak alde batera utzi eta Marokok inbaditu zuen mar-txa berdea bezala ezaguturikoan. Geroztik, saharar biztanleria zatiturik dago. “Banatzera behartuak izan ziren”, argitzen du Karmelek. Kanpamentuetan 200.000

pertsona inguru bizi dira, Haritzen aburuz “basamortu erdian guztiz egituratutako gizartea” osatzen dutelarik. “Basamortuko handitasuna, edertasuna, lasaitasuna, isil-tasuna, ilargi ikusgarria... pobrezia eta injustiziarekin batera bizi dira”, gainera-tzen du.

Kanpamentuak wilaya-tan (probintziak) banaturik daude. El Aaiún, Smara, Dajla eta Ausserd dira euren izenak. Mendebaldeko Saharako hainbat hiriren oroimenez dei-tzen dira horrela, sahararrek militar maro-koarren indarkeriaren ondorioz atzean utzi behar izan zituzten hiriak. Oraindik ere, askok bertako etxeetako giltzak gorderik dauzkate, euren atea berriz noiz irekiko zain.

Berbere jatorriko herri honek hassaniera du hizkuntz eta tearen erritualak girotzen ditu euren solasaldiak. “Jende irekia, maite-korra, eskuzabala, abegitsua... da. Bizi duten egoera sostengaezinen gainetik alaitasuna nabarmentzen da”. Haritzen esanek ezin hobeki deskribatzen dute sahararren izaera.

Balorez hornitutako gizarte bateko partai-de dira, non familia eta adiskidetasuna diren nagusi. “Saharako barne produktu gordina pertsona da, kultura”, azaltzen du Haritzek.

Ondasun materialen ezean hezkuntzan inbertitzen dute. Gazteek gogoz ikasten dute atzerrian goi mailako ikasketak burutu ahal izateko. Kanpamentuetara bueltatze-an baina, ez dute lan egiteko aukerarik eta euren diplomak ondo gorde besterik ezin dezakete egin. Halere, euren herrialdera itzultzean behar den erabilera emango die-tela jakin badakite.

“**drama horren protagonistek orain aurpegia dute, izen-abi-zenak, telefonoz deitzen zaituz-te... jakitea eta sentitzea gauza desberdinak dira**”

Land roverra hartu eta kanpamentuetatik hainbat ordutara, Mendebaldeko Sahara iparraldetik hegoaldera banatzen duen harresia dago. 80. hamarkadan eraikia, 2.800 km-ko luzera du eta 160.000 militar marokoarrek zaintzen dute. Babesa pertso-nen kontrako minek, alanbre-hesiek, txaku-rrek eta tankeek osotzen dute. “Marokoko armadaren ehuneko altua harresian dago”, gaineratzen du Karmelek. 24 urteko gazte honek ez du ulertzen munduak lotsaren harresi honen aurrean ezikusien egitea. “Nola izan gaitezke horren hipokritak?”, galdetzen du. Ezjakintasuna eta axolagabe-



keriaz gain, apartheid informatiboa gainditu behar dela uste du Haritzek.

Harresiaren bestaldean, mendebaldean, gobernu marokoarraren zapalkuntzaren pean bizi dira martxa berdearen ondorioz alde egin ez zuten sahararrak. Karmelek eta Haritzek hango egoeraren berri bazuten ere, kanpamentuetan sakonkiago ezagutu dute lurralde okupatueta errealitate gordin. Atxiloketak, desagertzeak, torturak... Hitz bortitzenek ere lekua dute bertan gertatzen direnen zerrendan. "Maroko giza eskubideak urratzearen, NBEko erresoluzioez paso egitearen, errepresioaren... errudun da", salatzen du Karmelek.

Lurralde liberatuak harresiaren ekialdean daude Fronte Polisarioaren esku. 18 urte dira alaitar erresumak eta Fronte Polisarioak su-etena sinatu zutenetik. Dena den, nazioarteko komunitatearen erantzun ezaren aurrean, sahararrek ez dute gerra berri bat abiaraztearen ideia baztertu. "Modu batean edo bestean gatazka honek amaitu egin behar du, nazkatu daude itxarotiaz", azaldu digu Karmelek. Kanpamentuetan arabiar atsotitz bati heltzen diote euren borrokarako sentimendua azal-

tzeko: askatasuna ez da ematen, hartu egin behar da. "Erabakia edozein izanda ere gu eurekin egongo gara", Haritzek argi dauka. "Izugarri inpresionatu ninduen ni baino lau urte gazteagoa zen mutil batek tanke gidari bezala jarduten zuela jakiteak", gogoratzen du. "Ni ordea, hurrengo astean fakultatera itzuli behar nintzen", gaineratzen du indargabe.

“

24 urteko gazte honek ez du ulertzen munduak lotsaren harresi honen aurrean ezizisiarena egitea

Gaur egun, sahararrak duela 36 urte aldarrikatutako autodeterminazio erreferenduari zain daude oraindik. Marokoren estrategia apelazioen bitartez kontsulta berandutzean datza, Mendebaldeko Saharak eroldan biztanle marokoarrak geroz eta gehiago izan daitezen.

Sahara Marokoren agindupean badago ere, Espainia da berezko indar administratzailea, nazioarteko legediaren arabera, Saharak deskolonizatu gabeko lurralde bat

izaten jarraitzen baitu. "Presioa egin behar zaie gobernuari euren ardura bete ditzaten, duela ez hainbeste sahararrak espainiar biztanleak ziren eta Sahara Espainiako 53. probintzia", Karmeleren aldarrikapena erabatekoa da. Espainiak erantzukizun argia du, baina hainbat estatuk, Frantzia edo Estatu Batuak kasu, Sahararen gainean dituzten interesek zilegi den bideari ekitea eragozten dute. Izan ere, Saharako kostaldean munduko arrantza sardarik garrantzitsuenetakoa dago eta barnealdean oso kalitate oneko fosfato meategiak.

Interes ekonomiko eta politikoak giza eskubideen gainetik daude kasu honetan ere ●

Mapak kontsultatzeko: <http://www.sadicum.org/mapas.htm>

proposamenak

dvd

'MIKEL LABOA (1934-2008)'

ELKAR - 2009/06 WWW.ELKAR.COM

Mikel Laboaren bizitza eta obra jasotzen ditu dvd-ak. Urte hauetan guztietan Mikelek egindako lana jaso nahi izan da ordu eta erdi luze irauten duen dokumental honetan. Bi zatitan banatuta dago. Lehenbizikoan, Mikel Laboak berak kontatzen du bere bizitza eta obra. 1978. urtean Herri Irratian egin zizkieten elkarriketetan oinarrituta. Bigarrenean, aldiz, batez ere, bere ingurukoek hitz egiten dute Mikeli buruz. Kontakizun horiei lagunduz, bere bizitza bete zuten irudiak eta hotsak, hurbilekoei egindako elkarriketak, berrogeita hamar urteetan zehar emandako kontzertuak eta grabatutako diskoak jaso dira. Ordubete eta berrogei minutu inguruko dokumentu aberatsa, betiko eta etorkizuneko Laboazaleek hobeki ezagut dezaten donostiar sortzailea. Dvd-ari disko labur bat ere gehitu zaio; Gipuzkoako Foru Aldundiak Mikel Laboari urrezko domina eman zion ekitaldian Iñaki Salvadorrek eta Josetxo Silgueroek eskainitako kontzertua eta Bernardo Atxagak ekitaldi hartan Mikeli idatzitako 'Beti lagun' poema jasotzen dira.



liburua

'MUNDUKO ZAZPI HERRIALDETAKE IPUINAK'

JOSEBA SARRIONANDIA [haurrak eta gazteak] PAMIELA - 2008/12
WWW.PAMIELA.COM

Dohai eta finezia handiz, egileak munduko kultura desberdinetako istorio, irudimen, sentipen eta koloreak ekartzen ditu euskararen unibertsora eta, alderantziz, euskal gazteak gonbidatzen munduko zenbait herrialdeetara bidaiatzeko bat egitera. Elkarren arteko errespetu, begiramen eta miresmenean oinarritutako interkulturalitatean. Mohamed, Cize, Silvia, Diego Armando, Osamu, Marie Jeanne, Margaret; "Bakoitzak herrialde bateko ipuina kontatzeko bildu gara. Ipuinak munduko leku urrunetatik datozen arren, euskaraz kontatuko ditugu".



zinea

'CHER AMI'

ANIMAZIOZKO FILMA (EUSKARAZ) ZUZ.: MIQUEL PUJOL [KATALUNIA, 09-EKAINA]

Cher Ami uso apaina, Tourbillon txolarre txikia eta Lindbergh saguhegalaria dira I. Mundu Gerrako gertakarietan oinarritutako animaziozko filmaren protagonistak. Frantziako Argonne basoan kokatutako baserria arriskuan jarriko du gudak. Uso baldar batzuk soldadu estatubatuarren mezulari bihurtuko dira orduan.

'Cher Ami' egiteko lau urtez 200 lagunetik gora pertsonak egin dute lan. Istoria guda garaian garatzen da. Filmaren produktorearen hitzetan guztioi interesatzen zaigun historiaren parte bat da. Hori dela eta, arduradunek mugak gainditu eta filma gainerako europar herrialdeetara iristea espero dute. Filmari izena ematen dio usoa benetan bizi izan zen. Are gehiago, gerra amaiztean "Croix de la Guerre", Frantziako aipamen gorena jaso zuen. Usoaren hilotza heroia bailitzan diseatuta gordeta dago Washingtongo Smithsonian museon.

Miquel Pujol Walt Disneyko antzinako marrazkilariak zailena animalien bi dimentsiotako planoak hiru dimentsiotako planoekin uztartzea izan dela adierazi du. Filma egin ahal izateko dokumentazio lan handia egin behar izan dute garaiko arropak, artilleriak eta armak nolakoak ziren jakiteko.


Filma katalanera eta euskarara bikoiztu dute eta Donostiako, Sitgesko eta Malagako zinemaldietan parte hartu du aurretiaz.



musika

UDA: BESTE MOTAKO MUSIKA ENTZUTEKO GARAIA

t. uhina



Ezin da ukatu udan beste jarrera bat daukagula bizitzarekiko eta ondorioz gauza berriak ezagutzeko eta aurkitzeko. Beste arropa bat janzten dugun moduan eta hainbat behar baztertzen ditugun bezala, geure buruak ere beste jarrera bat dauka jakin-mina asetzeko, adibidez musika eta talde berriak ezagutzeko.

Udan denbora libre gehiago daukagu eta hortaz, denbora gehiago kontzertuak ikusteko, dantzatzeko, disko berriak aurkitzeko eta talde ezberdinak ezagutzeko. Beste kultura eta ohitura batzuk ezagutzen ditugun moduan, beste musika mota batzuk ere entzun ohi ditugu. Nork ez du aurkitu musika-tresna arraroren bat bidaiatzean? Nork ez du dantzatu Kuban kalean zehar aurkitzen diren hainbat musikariren artean? Nor ez da kontzertu batera edo bestera joan kasualitatez gau atsegin batean?

Argi dago! Uda eta musika erabat lotuta doaz, uda disfrutatzeke garaia delako eta musika plazerarekin lotuta daukagulako. Gogoan daukat oraindik txikia nintzenean jazzaldira eramaten nindutela eta bertan jendeak gogo handiz musikaz disfrutatzen zuela. Hori nire barnean betiko sartu da eta musika, dantza eta plazera beti lotu ditut.

Egin ditudan bidaiak guztietan musika beti agerian egon da. Hirietan beti kontzerturen bat edota dj-ren bat edo beste aurkitu ditut. Herri txikietan eta nekazal eremuetan musika lagunen arteko komunikazio tresna izan da. Dudarik gabe, oporretan gaudenean eta batez ere kaleaz gozatzen garenean, musikak inguratzen gaitu eta bere energiaz kargatzen gara hurrengo ikasturteari indarrez aurre egiteko ●

EUSKALDUNTASUNEAN LAGUN

MENDIA OPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS



Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48
Olagibel, 33 t. 945 25 40 84
GASTEIZ

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Iturrieta

ASKALDEGIA IREKITA Sagardotegia

OSTEGUNETIK AURRERA IREKITA.

Gainontzeko egunak, enkarguz.
bertako sagardoa

<http://iturrietasagardotegia.blogspot.com/>

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593

ež galdu aukera

... euskaraz

945 22 21 53
geu aldizkaria & elkarteak | pedro asua, 2 - 3.a
01008 gasteiz www.geugasteiz.com

JAZZAHARREAN, JAZZAZ GOZATZEKO BESTE ESTILO BAT

t. geu

Datorren uztailaren 1etik 10era Gasteizko Alde Zaharreko hainbat taberna, plaza eta katedrala bera JAZZ musikaz blaituak izango dira. 16 kontzertu, zeinetan denetarik izango den: jazz, swing, funk, blues, groovie, flamenko-jazz, acid-jazz etab...

Aurtengoan orora 16 kontzertu eta hainbat eszenatoki hartuko dituen jaialdi hau, San Frantsisko kantoian jaio zen eta bertan jarraitzen du izaten bere arima, baina aurtengoan ia alde zahar osora zabaldu nahi izan dute. Alde batetik, beste taberna batzuetara: Aiztogile kalean RIOJANA eta HALA BEDI tabernetara, Hedegile kalean IGUANA, eta Aihotz plazan CRU jatetxea. Beste aldetik, iaz ART & SOUND eta ARTIUM museoa batzen dituen ekimenarekin bat egin bazuten, aurtengoan beraiekin errepikatzeaz gain, Katedral Zaharrean egiten diren kontzertuekin ere elkartu eta elkarrekin antolatu dute saio bat. Ekimen honi hasiera eman ziotenean garbi zuten xedeetako bat Alde Zaharreko bizitza kulturala aberastea zela, era aktibo, dinamiko, anitz eta integratzailean... Pixkanaka lortzen ari delakoan, era berean frogatuz doaz gogoz, ilusioz, elkarriketaz eta lan handiaz gauza interesgarriak egin daitezkeela Alde Zaharrak hiriaren kultur erreferente garrantzitsu izaten jarrai dezan.

Garbi dago eskaintza zabala egin dutela, 9 egunetan jazzaleek edukiko dutela non asetu euren egarri musikala: Alde Zaharrean eta gainera DOHAINIK ●



asstrio



miguel salvador quartet



txatarrerria keaton

✓ **ALEX CAPORUSCIO TRIO** (ITALIA / MADRIL)
Asteazkena 1
20:00 PARRAL
<http://www.myspace.com/alexcaporuscio>

✓ **BASICS** (GASTEIZ)
Asteazkena 1
21:30 GORA

✓ **MIGUEL SALVADOR QUARTET** (BILBO)
Osteguna 2
20:00 GORA
<http://www.myspace.com/miguelsalvadorproject>

✓ **IGUANA TRIO** (KATALUNIA)
Osteguna 2
21:30 PARRAL
<http://www.myspace.com/iguanatrio>

✓ **THREE OF US** (GASTEIZ)
Ostirala 3
20:00 IGUANA

✓ **TXATARRERIA KEATON** (GASTEIZ)
Ostirala 3
23:00 AIHOTZ PLAZA

✓ **KÚRTULUS** (GRANADA)
Larunbata 4
20:00 STA. MARIA KATEDRALAREN ATARIPEAN

✓ **PRISCILLA** (EH)
Astelehena 6
20:00 GORA
<http://www.myspace.com/priscillafunky>

✓ **FIX THIS** (MADRIL)
Astelehena 6
21:30 PARRAL
<http://www.myspace.com/fixthisband>

✓ **COSSA NOVA** (ZIGOITIA / ARABA)
Astearte 7
20:00 HALA BEDI TABERNA
<http://cossanova.wordpress.com>

✓ **JUAN ARENALES & HOT CLUB** (ASTURIAS & GASTEIZ)
Astearte 7
21:30 LA RIOJANA
Adi sorpresari: gonbidatu nazioartekoa!!!
<http://www.myspace.com/juanarenaleshotclub>

✓ **MALATU** (GASTEIZ)
Asteazkena 8
20:00 PARRAL
<http://www.myspace.com/malatu jazz>



✓ **STEAMBOAT JAZZ BAND (GASTEIZ)**

Asteazkena 8

20:00 GORA

<http://www.musicjazz.net/steamboat>

✓ **ALL JAZZERA (GORLIZ / BIZKAIA)**

Osteguna 9

20:00 GORA

<http://www.alljazzera.cc>

✓ **AGUARDIENTE SWING QUARTET (ALACANT)**

Osteguna 9

21:30 PARRAL

<http://www.aguardienteswing.com>

✓ **ASSTRIO (BARTZELONA)**

Ostirala 10

21:00 ARTIUM

<http://www.asstrio.com>

✓ **JIM & PAM DJS**

Ostirala 10

23:00 PARRAL

Bartzelonako eszenako estilo anitzetako musikari ezaguna da bietako bat (Phat Fred, asstrio, La kinky beat, Fundacion Tony Manero). Saioa dihoa Rare Groove eta Oldies-etik azken mugimenduetara.

✓ **DJ GLUTTON**

Ostirala 10

23:00 GORA

Glutton, melomano aseezina, Ziripot donostiarrean hasi zen musika jartzen, non 5 urte eman zituen egoiliar. Ondarra, Errota, Dark Kold, Komplot, Iturrira Bartola, Urgulleko Guardetxea edota Gasteizko Dublíneko kabinak, bere gustu musikal zabalaren lekuko izan dira. Egun Donostiako Pokhara-ko egoiliar, ez dio mainarik egiten musika mota bati ere.

Gasteizen, 2009ko ekainaren 3an

Kaixo lagunok,

ARABATAKADA 09 burutu zenetik aste baten buruan, antolakuntzatik honako balorazio hau plazaratzea komenigarritzat jo dugu.

Lehenbizi, eta bertaratu zinetenek ikusiko zenuten ere, ARABATAKADA 09ak inoiz baino jendetza gehiago biltzea lortu zuela aipatu behar da. Zaila da sarrerarik gabeko festibal batean biltzen den jende andana zenbatzea, baina 18.000 lagun bertaratu ginela badiogu ez gaude exageratzen ari. Kopuru honek ARABATAKADA Euskal Herriko jaialdirik nagusienetarikoen artean jartzen du, izaera nazionala hartuz.

Kontzertuak izan ziren jende gehiena bildu zutenak, baina egunean zehar izan ziren beste ekitaldiek ere parte-hartze nabarmena jaso zuten (200 pertsona bazkari herrikoian, erromeria eta dantzaldia karpan, eta abar...). Errebindikaziorako lekua ere egon zen, ekitaldi politikoa medio ikasleon hitza indartsu entzun baitzen.

“**ARABATAKADAKo antolakuntzatik hausnarketa bat bultzatu nahiko genuke honen inguruan, ez baitauka inolako zentzurik horrelako doako jaialdi bat antolatzea inguruko supermerkatuek beraien abuztua egin dezaten**”

Giro ezin hobea izan zen egun eta gau osoan zehar, eta aipagarria ere bada euskarak jasotako bultzada sendoa, ez baitugu ahantzi behar horixe dela ARABATAKADAREN helburu nagusia, hain zuzen ere.

Baina gauza guztiek dute bere alde ona eta txarra, eta gurea ez da salbuespena. ARABATAKADAK hartu duen tamainako jaialdi bat aurrera ateratzeak esfortzu izugarria eskatzen du, bai giza aldetik eta baita ekonomikoki ere. Tamalez, hainbeste jende edaria kanpotik ekarri izanak jaialdiko gastuei aurre egitea zeharo zailtzen du, gogoratu behar baita lortzen dugun dirua edari eta janaritik soilik ateratzen dugula, eta nahiz eta prezio herrikoiak jarri, bertaratutako pertsona askok eta askok ez zuten xentimo bat ere utzi gozatu zuten hori guztia ordaintzen laguntzeko. ARABATAKADAKo antolakuntzatik hausnarketa bat bultzatu nahiko genuke honen inguruan, ez baitauka inolako zentzurik horrelako doako jaialdi bat antolatzea inguruko supermerkatuek beraien abuztua egin dezaten.

Gauzak horrela, ARABATAKADA jaialdia mantentzeko hurrengo urteetara begira aldaketa batzuk planteatzera behartuak gaude, sarrera minimo bat kobratzea, aurrekontua murriztea, edo antzeko neurriren bat, bere garaian jakinaraziko dizueguna, noski.

Dena den eta bukatzeko, pasa den ostirala 22an ARABATAKADA 09an parte hartu zenuten guztioi geure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkizuegu eta bereziki jaialdia aurrera ateratzen lagundu zenuten guztioi, zuen konpromiso eta eskuzabal-tasunari esker lortu baikenuen ARABATAKADARIK handiena burutzea.

Eskerrik asko denoi eta hurrengo urte arte!



Arabatakada 2009



LOR musika taldea

HAMARKADA BATEN BILAKAERA

LOR TALDEKOAK EZ DIRA HASI BERRIAK MUSIKAREN MUNDUAN. ELORRIOKO (BIZKAIA) TALDEAK HAMAR URTE DARAMATZA TAULA GAINEAN, ETA DAGOENEO HIRU DISKO KALERATU DITU: 'LOR' (2004), 'BAKOITZARI BERA' (2006) ETA 'ROCK TERAPIA' (2009). OSO GAZTE HASI ZIREN MUSIKA MUNDUAN, ETA GAZTE IZATEN JARRAITU ARREN, URTEETAKO ESPERIENTZIAREN BILAKAERA SUMATZEN DA BAI ZUZENEOETAN, BAITA AZKEN ESTUDIO LANEAN ERE -ATXEH INDEPENDENT RECORDS-EKIN KALERATU DUTE-.

t. edurne begiristain

a. edorta sanz

1998ko abenduan sortu zuten lau lagunek Lor taldea, eta hurrengo urteko iraila aldera jo zuten lehenengo kontzertua, Rock Txosnan, hamabost urterekin. Laukote moduan hasi ziren, eta orain hirukotea dira: Lander Irazola, Kimetz Blanco eta Ramiro Unzeta. Musika estiloan bilakaera ere nabaria da. Garapena igartzen da azken diskoan. Heavy-rock estiloarekin hasi ziren jotzen, hortik rock-metalera pasa, eta orain metal doinuetatik aldendu eta tendentzia berriak lantzen dituzte: rock melodikoa, hardcore eta pop ukitu batekin. Lander Irazola Lor taldeko gitarra eta ahotsarekin egon da GEU, azken lanaz solasten.



LANDER IRAZOLA, LOR TALDEKO GITARRA ETA AHOTSA:

“Hirugarren diskoarekin finkatzeko ordua iritsi dela sumatu dugu”

-‘Rock terapia’ aldaketaren diskoa da: hirukote moduan ateratzen duzen lehena da, soinu metaleroetatik aldendu zarete...

Eboluzio naturala izan da. Lau izatetik hiru izatera pasatu ginenean pentsatu genuen hutsune hori betetzeko musika arinagoa egin behar genuela. Baina ez gara joan espreski hutsune hori betetzera, horrela etorri da. Soinu aldetik batez ere zuzenekoetan nabaritzen da, koruetan eta halakoetan igaritzen baita. Dena den, Lor ez da sekula izan gitarrarekin bertuositate handirik egin duen talde horietakoa, beraz, ausartuko nintzateke esatera kontzertuetan soinua hobea dela diskoan baino.

-‘Rock terapia’ izena jarri diozue diskoari. Lanaren filosofia laburbiltzen du?

Bai, horrenbeste denbora elkarrekin jo eta gero konturatu gara beste pertsona batzuek futbola edo bestelako afizioak dituzten moduan, guretzat rocka terapia bat dela. Txarto gaudenean, bajoia dugunean... lokalera sartu eta jotzen hasten gara. Hor uzten dugu adrenalina guztia. Hortik dator apur bat izena, azkenean musika bizimodu bihurtu baita guretzat, eta hori da Rock Terapia.

-Hamar urtetako esperientziak pisua izan du azken diskoan?

Kontzertuetan igartzen da denbora asko egon garela jotzen, baina nik uste dut gehienbat bilakaera hori diskoa grabatzeko orduan igarri dela. Hirugarren diskoarekin, finkatzeko ordua iritsi dela sumatu dugu. Esperientzia gehienbat alde horretatik sumatu da. Hala ere, oraindik gazteak gara eta badaukagu asko ikasteko.

-Hainbat kolaborazio izan duzue diskoan...

Bai. Disko guztietan saiatzen gara kolaborazioak izaten, letretan zein instrumentuetan, edo ahotsetan. Kasu honetan Miren Amuriza, Ibai Guridi eta Xabi Paya bertsolariek letra bana idatzi dute. Bereziki bertsolari gazteei saiatu gara aukera ematen. ‘Elkartasun itxaropen’ kantan Kauta taldeko Mikel Morenok eta Kuraiko Fernando Sapo-k hartu dute parte.

-Diskoaren diseinua asko zaindu duzue.

Gure asmoa izan da izan dugun aldaketa diskoaren azalean ere islatzea. Lerro beltza eta ilunetik aldentzea nahi genuen, jendearengan harridura sortu nahian. Entzun ditugun kritikak onak eta txarrak izan dira. Baina argi dago hobe dela gutaz hitz egitea, ez hitz egitea baino. Hori bai, hoberena diskoa entzutea da ●



Atxeh
Independent
Records™

ATXEH INDEPENDENT RECORDS

Apenas urtebeteko ibilbidea du Atxeh Independent Records zigiluak. Ibilbide motza, baina emankorra, dudarik gabe. Izan ere, musika munduaren zurrumbilo zailean berezko tokia lortu du dagoeneko. Bide propioa lantzen ari da, kalitatea irizpide bakartzat hartuta. Eta hori izango da, ziur asko, zigiluaren etorkizuna bermatuko duena. Izan ere, diskoetxe askok daramaten kontrako norabidean lan egiten du Atxeh zigilu independenteak: “Gure irizpide bakarra kalitatea da, talde onak, diska onak, eta gutxi”. Andoni Fernandez zigiluaren arduradunetako batek azaldu digunez, zigiluan egiten duten zeregin garrantzitsuena da lan egiten duten taldeei zerbitzu bat eskaintzea: promozio edo management zerbitzua. “Diskoek ez dute etekinik ematen, baina ez zaigu axola, amortizatzearekin nahikoa dugu, zerbitzu bat ematen diegulako taldeei. Guk irabazten dugu zuzenekoetatik, ez diskoetatik. Hori da gure zigiluaren esentzia”.

Gasteizen du Atxeh zigiluak egoitza, eta bertan bost lagunek lan egiten dute. Madrilen ere bulegoa dute, bi langilerekin. Momentuz hiru talderekin egiten du lan Atxeh zigiluak: Lor, Kauta eta El Combolinga taldeekin. Baina hiru talde horien diskoak kaleratu ez ezik, beste talde askorekin ere lan egiten dute, haiei promozio zerbitzuak eskainiz. Filosofia argia dute Atxeh zigiluan: diskoak eta pertsonak ongi tratatzea. “Gure erronka nagusia izan da taldeak pertsonak bezala tratatzea. Beraiekin lan egitea, bai promoa egiteko orduan, bai diskoa egiteko orduan... beraiekin denbora inbertitzea”. Atxeh zigiluak musika taldeak zaintzeko duen ardura horrek isla dauka, besteak beste, kaleratutako hiru diskoen diseinuan. Lor taldearen azken diskoaren diseinua, esaterako, punta-puntakoa da, erabilitako kolore eta tipografia mota mundu mailan erabiltzen diren modernoek baitira. “Euskal Herrian inor ez da arduratzen horrelako kontuez, baina gu bai”.

Etorkizuneko erronkei moldatzeko prest daude zigiluko arduradunak, baitakite epe ertainean desagertuko dela CD euskarria. Fernandezek dioenez, ziuurren 2011rako jada ez dute CD formatua kaleratuko, baina horren ordez, musika taldeen zuzenekoetan mugikorren bidez eta bluetooth erabilita, musika jaisteko aukera eskainiko dute. Etorkizun hurbila euskarri mugikorrean datorrenez, Atxeh zigilua etorkizun horretara moldatuko dela ziur da Fernandez. “Etorkizuneko erronkei moldatzea da gure etorkizuna, musika euskarria alde batera utzi eta taldeak ezagutaraztea eta laguntzea izango da bereziki gure egitekoa”.

ANDAGOSTEKO BORROKA

t. / a. kike fdz. de pinedo

Kristo aurreko 38 urtearen inguruan gaude. Legionarioz, Galian borrokatutako ozenbait beteranoz eta beste soldaduz osatutako armada Kuartango bailaran dago. Kastro bat erasotzetik edo erasotzera doaz. Bat-batean, piramide itxurako Marinda mendia-
ren magalean eta Jokano eta Sendadiano lotzen dituen bidearen ondoko Andagoste izeneko lekuan daudela, indigena talde batek inguratu eta oldartzen da euren aurka. Erromatarrek babes kanpalekua *-castra aestiva-* egiten saiatzen dira baina, antza, ez dute bukatzea lortzen, borroka kanpalekuaren barruan ere ematen baita. Itxuraz indigenak garaile ateratzen dira.

Era honetan, Jose Antonio Ocharanek, bost urtetan, M. Unzetarekin batera, indusketa egin eta aztarnak aztertu eta gero, laburbiltzen du bertan gertatutakoaren hipotesia.

Ocharanen aburuz, garrantzi handikoa da aurkikuntza. Batetik, erromatarren garaiko Euskal Herrian orain arte aurkitu diren aztarnarik zaharrenak baitira, eta bigarrenik, erromatarren inbasioa baketsua izan zen ustearen kontra, Andagosteko indigenek erromatarrei, Kantabrián eta Asturiasen 10 urte beranduago bezalaxe, aurre egin zietela erakutsiko lukeelako, historia aldaraziz.

Aurkitutako aztarnak

Edozein hipotesitan bezala, topatutako aztarnen interpretazioan oinarrituta dago indigenen eta erromatarren arteko borrokaren hipotesia. Lehen arrastoak 1998 urtean aurki-



ermenetu izeneko muinoan burdin aroko herrixka zegoen

tu zituzten ubide bat egiten ari zirela. 2003 urtera arteko indusketa lanetan gerra materiala ugari azaleratu zuten, besteak beste:

Izaera militarreko mila pieza ale baino gehiago berreskuratu ziren. Jaurtitzeko erabiltzen ziren 114 *glände* izeneko berunezko jaurtigaiak dira hauetatik ikusgarrienak, batik bat, orain arte J.M. Barandiaranek aurkitutako *glände* bakarrarekin alderatuz gero.

Legionarioek erabili ohi zituzten sandalien 600 iltze inguru, orain arte Euskal Herrian topatu gabekoak. Geziak, *pilum* izeneko jabalinen puntak, *fibulak* -kateorratzak, sastagaiak edo puñalak, burdinazko eraztunak, harrizko errota txikiak.

Bestalde, kanpamentuaren tamainak -93 bider 104 metro- erakusten bide du 1.000 eta 1.500 bitarteko soldaduz osatuta zegoela erromatar gudarostea.



borrokaldiaren berreraiketaren eszena



borrokaldiaren berreraiketaren beste eszena bat

erromatarren inbasioa baketsua izan zen ustearen kontra, Andagosteko indigenek erromatarrei, Kantabrian eta Asturiasen 10 urte beranduago bezalaxe, aurre egin zietela erakutsiko lukeelako, historia aldaraziz

Txanponak

Aurkitutako txanponek zenbait informazio interesgarri eskaintzeaz gain, borrokaren data zehazten laguntzen digute. Zaharrenek iberiar zeinuak dituzte eta non diren eginak *zekak* erakusten digute: *Kelse*, *Untikesken*, *Bilbilis*, *Baitolo*, *Erkauika*, *Arse*, *Tamaniu*. Beste batzuk zilar itxurako txanpon faltsuak dira. Tranpa hau erromatar Estatuak egin ohi zuen zilar falta zuenean, kobre edo brontzeko txanpon bati zilar estalia emanez.

Txanpon berriena, aldiz, Kristo aurreko 42 urtekoa da, eta datu honek eta txanponen

ohiko ibilbidea kontuan hartuta, borrokaldia 38 urtearen inguruan kokatzera eramán du.

Indigenak? Zeintzuk?

Batzuk erromatarrek zirela garbi dago, baina zeintzuk ziren besteak? Ocharanek indigenak zirela iradokitzen digu, seguru asko karistiarrek. Hauen kopurua ez da ezagutzen baina erromatarrek baino gehiago zirela suposa daiteke. Oraingoz bailaran garai hartako *kastro* edo herrixka indigena bakarraren arrastoak topatu dituzte Andagoia eta Sendadiano artean dagoen **Ermenetu/Esmentu** izeneko muinoan, bataila lekutik gertu. Kontuan hartzekoa da mendiaren bestaldean, ekialdean eta ez oso urruti Iruña-Veleia eta Oroko kastro karistiarrek zeudela eta hego-mendebaldera Lastra-Karanka eta Karastako herrixka autrigoiak.

Edonola ere, oso urriak dira aurkitutako indigenen zantzuak. Garaileek galdutako armak jaso ohi zituzten azalpena eman zigten guri. Beraz, erromatarren etsaien identi-

tatea zaila da frogatzen, Ochararenek bertako indigenen hipotesia eman badu ere. Honen harira esan behar da, badela batailaren hipotesia zalantzan jartzen duenik ere. Antza denez, datorren urtean, aurkitutakoaren materiala eta ondorioak jasoko dituen liburua argitaratuko du aipatutako arkeologoak eta orduan argibide gehiago ezagututa errazagoa izango da gerta zitekeena ulertzea. Bitartean jakin-mina duenak jo dezala Kuartangoko Urbina Basabe herrira. Izan ere, urrira bitartean hango dorrean **Andagosteko bataila** izeneko erakusketa ikusgai izango duzue hurbiltzen zareten guztiok. Borrokaldiaren inguruko azalpenak eta bere berreraikuntza erakusten duen bideo batekin batera, dorretxearen nondik norakoak eta bailarako historiaren xehetasun aipagarrienak ezagutu ahalko dituzue bisita gidatuan, esaterako: herrietako eliza berezi bezain ederrak, zubiak, Anda inguruko trikuharri ikusgarriak, edo Solacuevako bizilekua bere pintura eskematikoekin. Xarma eta interesa ez du falta Kuartangok! ●



m. josean morlesin



historia zutabea

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

XIX. mendean 'Gure Izarra' izeneko argitalpen euskaltzalea sortu zuten. Luzaz mintzo behar izanen genuke, bere jaiotzaz nahiz garabideaz. Nago bertze batean eginen dugula. Oraingoan, haatik, aipamen hurbilenekin nahikoa eta soberan ukanen, udako beroak arinkerietan edo jardutea eskatzen baitigu.

1888an argitaraturik: "Araba probintzian, erri bic, iruc edo erri geyagoc egitendute Ayuntamiento bat, Vitoriya, Salbaterra eta beste errirenbat apartatu ezker; Barrundia Ayuntamiento amairu erriekin egiña dago. Ozaeta eta Heredia dira printzipalenac; amairu erri oyec len ziran bi Ayuntamiento, Barrundia eta Gebaracoa; baño orain sei urtez gerostic, oyec birekiñ bat egiñadago, Barrundia (Barru-aundia?).

Oraiñ bi urterarte Ayuntamiento onen buru izan da Andicanaco erriya, oso chikiya, alde guciatic bide charrakin eta coche-biditatic urrut; gañera Ayuntamiento Jaunac beregauzac erabakitzaera jun beartzutenean, etzuen billatzen erri onetan baso bat ardo icerdiya

'Gure izarra'ren aurkezpena



kentzeco; ardo naibazuten eran, paisaren echera jun bearran arkitzenziran".

Albistea emateaz landa, ageri delarik, iritzia baino gehiago eskaintzen zuten kazetariak. Zentsuraren gainetik edo, jada kritika sortua baitzen!

Eta honela jarraitzen zuen, "Gausa oyec guciyac contu artuta, Ozaetaco eta erri inguruco gizonac, alcar ondo ondo artuta, gobiernutic alcantzatuzuen, Ayuntamiento


onen burutasuna edo buru izatea Ozaetara ecartzia; emen ezdira falta tabernac eta dendac non boltza utza ezduanac jan da eran eginlitekean. Ozaeta da bada amairu erri oyetan buru izatea onduen meraciduan erriya; besteac baño erri aundiagua da, gañera emen bicida Medicua, lur neurtzallea, secretariya, emen dago botica eta emendic pasatzenda cochebidea Vitoriyara. Cartaeche edo carteriya ere onera ecarriya dago Andicanatic bost edo sei illabetez gerostic".

Honek erakusten digu, zinez, eta Geu maitagarriak ia bakardadean burutzen duen ezinbertzeko lana ezin ahaniz, beti izan dela posiblea Arabako egunerokotasunaz euskaraz aritzeaz, irakurle, baita euskara zokoraturik eta desagerraraztear zutelarik ere! ●

geusex@emaize.com

**Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik
ala jakin-minik al duzu?**

**Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko
arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.**



**Anima zaitze eta bidali hona zure galderak:
geusex@emaize.com**

Emaize Sexologia Zentroko profesionalek erantzungo dizute.

**emaize sexologia zentroa. gizon eta emakumeentzako arreta
bueno monreal 1-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com**

**Aupa! 23 urteko emakumea naiz, bikotekidea daukat
duela urtebete. Harreman sexualak izaten ditugu eta jakin
nahi nuke zeintzuk diren plazer gehien ematen dituzten
posturak. Eskerrik asko!**



Kaixo,

Lehenik eta behin, esan beharra daukat erotikan ez dagoela errezetarik, pertsona guztiok ezberdinak garelako, ezberdin sentitzen dugulako eta gauza ezberdinak gustuko ditugulako: bati gozamen handia ematen diona, beste bati ez hainbeste. Beraz, egin dezakezun hoberena zure bikotekidearekin hitz egitea da, ea zein praktika gustatuko litzaizuekeen egitea, eta biok ados egotekotan, aurrera eraman. Zure bikotekidearekin ikertu, frogatu, eta bakarrik ere, noski, horrela jakin dezazuen zer den plazer gehien ematen dizuna eta diona.

"Harreman sexualak" esaten duzunean, koito baginalari buruz ari zarela suposatzen dut, eta zein den gozamen handiena eman dezakeen koitoaren postura jakin nahi zenuke, ezta?

Berez, neskari klitoriaren estimulazioa ematen direnek plazer gehiago emango liokete, gorputzen igurzketak emana edo eskuarekin lortutakoa (berea edo bere bikotekidearena). Adibidez, zu bere gainean etzanda, edo belauniko berari begira edo bestaldera begira eta berak zure sorbalda besarkatuz... Hau horrela da, klitoria emakumearen gorputzeko leku sentikorrena delako, erogenoena. Izan ere, nahiko zaila da emakumeak orgasmoa izatea klitoria estimulatu gabe.

Hala ere, gorputz osoa gozamen iturria da, eta batzuetan, genitaletan arreta guztia jarzteagatik gorputzak (burutik oinetaraino) eman ditzakeen sensazio gozagarriak galtzen ditugu. Koitoarekin berdina gertatzen da: hainbesteko garrantzia ematen diogu, ahazten zaigula oso ongi sentiarazi gaitzaketen hainbat gauza egin ditzakegula, eta, agian, koitoa egiten baino hobe senti gaitzkeela: bakarrik (bata besteari begira) edo elkar masturbatu, genitalak ahoarekin estimulatu,...

Masturbazioa (eskuarekin, ahoarekin, oinekin, bularrekin,...) era ezberdinetan egin dezakegu: erritmo eta intentsitate aldaketekin, lubrifikatzaile edo gorputzerako olioak erabiliz (hauek sensazio gozagarriak eman ditzakete) edo produktu desberdinak erabiliz: yogurra, izotza, ezta,... bakoitzaren gustuen arabera. Koitoan kondoia erabiltzen baldin baduzu, gogoratu apur daitekeela aipatutako produktuekin. Kondoiarekin beti uretan disolbagarria den lubrifikatzailea erabili, ados?

Garrantzitsua da oso bion artean hitz egitea, zure eta bere gustuei buruz, taburik gabe eta gauzak eskatzeko beldurrik gabe. Bakarrik horrela bizitza erotikoa aberats eta gozagarria biziko dugu ●

miren lpz de arregi lakuntza

errezeta

diocesanas-mendizorroztako ostalaritza eskola

Izkira gazpatxoa meloi
petalo eta basiliko
pistuairekin



Osagaiak

- 1 kg tomate
- 100gr. luzoker
- Ogi lehorra
- Xerez-eko ozpina
- Gatza
- Meloia
- 100gr. piper berde
- Baratzuri atal bat
- Oliba olio birjina
- Ur minerala
- Izkira freskoak
- Basilikoa

Elaborazio prozesua:

Lehenik eta behin tomatea txikitu (zati handitan) eta piper berdea, luzokerra, baratzuria, ogia, gatza, olio, ozpina, ura eta izotzarekin batera hozkailuan gordetzen da.

24 ordu pasa eta gero irabiagailuarekin dena xehatu eta iragazi (lodia egitea aholkatzen da).

Ondoren izkira salteatuak gehitzen dira eta dena xehatzen da berriz.

Meloia "abaniko" gisara moztu eta plater sakon batean pintzen da.

Izkirei azala kendu (burua gorde, gero gazpatxoari gehitzeko) eta bi aldeetatik salteatu. 4 izkira erabiliko ditugu anoa bakoitzeko.

"Pisto" delakoa, frantses jatorria duen ongailua da, "pesto" italiarraren anaia. Basilikoa, baratzuria, limoia eta oliba olio xehatuz egiten da.

Plater sakonean, aurrez abaniko gisara moztutako meloia daukagu eta bertan izkirak ipiniko ditugu; "Pisto" a, maionesa (eta baita basiliko lore batzuk ere) erabili daitezke platera apaintzeko.

Gazpatxoa pitxar batean, aparte, zerbitzatzen da ●





**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

2009-2010 ikasturterako eskaintza

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK

HEZKUNTZA ARLOA

HAUR HEZKUNTZAN GRADUA *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura egokituta)*

LEHEN HEZKUNTZAN GRADUA *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura egokituta)*

IRAKASLE IKASKETAK 2. DIPLOMATURA:

- > Haur Hezkuntza espezialitatea
- > Hezkuntza Berezia espezialitatea
- > Entzumena eta Mintzaira espezialitatea

PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIA *(bigarren zikloko lizentzia, on-line eta erdi presentziala):*

- > Hizkuntzen Psikopedagogia
- > Esku-hartze Psikopedagogikoa

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO ARLOA

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN GRADUA *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura homologatze bidean)*

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

HUHEZI (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)
Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza - GIPUZKOA
Telefonoa: 943 714157 - Faxe: 943 714032
e-maila: sarrera@huhezi.edu

UZTAILAK 1 / 10

2009



1 ASTEAZKENA

20:00 PARRAL
ALEX
CAPORUSCIO
TRIO

21:30 GORA
BASICS

2 OSTEGUNA

20:00 GORA
MIGUEL
SALVADOR
QUARTET

21:30 PARRAL
IGUANA TRIO

3 OSTIRALA

20:00 IGUANA
THREE OF US
23:00 AIHOTZ PLAZA
TXATARRERIA
KEATON

4 LARUNBATA

20:00 CATEDRAL STA. MARIA
KURTULUS

6 ASTELEHENA

20:00 GORA
PRISCILLA
21:30 PARRAL
FIX THIS

7 ASTEARTEA

20:00 HALA BEDI TABERNA
COSSA NOVA
21:30 LA RIDJANA
JUAN
ARENALES &
HOT CLUB

8 ASTEAZKENA

**20:00 PARRAL
MALATU**
**21:30 GORA
STEAMBOAT**

9 OSTEGUNA

20:00 GORA
ALL JAZZERA
21:30 PARRAL
AGUARDIENTE
SWING
QUARTET

10 OSTIRALA

21:00 ARTIUM
ASS TRIO
23:00 PARRAL
JIM & PAM
DJS
23:00 GORA
DJ GLUTTON

LAGUNTZAILEA
GEU